


GUaiXe.eus



Hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren datu nagusiak



>>> 3

Lakuntzan Cava festa eta bertako produktuen azoka

Gaurtik igandera egitarau bete **>>>9**

Emakumeen Biraren XXX. edizioa Sakanan bihar

Etxarri Aranatz Aralar etapa (58 km) **>>>11**

Irurtzungo Udalak 20 pertsona kontratatuko ditu

Udal aurrekontua ia 1,9 milioikoa da **>>>9**

Castillo Suarezek Nemo liburua aurkeztuko du gaur

Altsasuko Basoko Marin, 18:30ean **>>>15**

Joanes Bakaikoa aurreneko finalaren atarian

Arteaga II.aren kontra Labriten, bihar **>>>11**

Aurten, MECNA-ri esker %40a desgrabatuko duzu! Eta 150€tik gora ordaindu baduzu, %80a.



NAFARROAKO OGASUNA

GUaiXe fundazioa

MECNA

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
ES56 3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com

Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU • Tel./faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



Izadi Garcia Gurutxarri Zorionak!
Biyer gue tutuk 3 urte!! oso ongi pasa asteburube eta muxu haundi bet fameli guzian partez!



Lorea Lacalle Etxarri Zorionak!
Familiaren partez!! Muxu pila bat.



Egoitz Zorionak bihurri!
Ilgandean 4 urte betetzen dituzu. Ongi pasa eta mila muxu Aguraingo eta Arbizuko familiaren partez.



Egoitz Zorionak maitia!
Ongi pasa zure eguna. Muxu pottolo bat. Oihan, aita eta amaren partez.

Bazkideek deskontua

Bakarra:

4,00€

Bazkideak:

3,50€

Irurtzun

Erabaki aurretik, garagardo festa

Larunbatean, 19:00etatik, aurrera Irurtzungo Barazki plazan

Gure Esku Dagok irurtzundarrakherri galdeketa parte hartzeraz gero, hartzera gonbidatu ditu garagartzaroren 18an. Erabakitze eskubidea praktikan jarri nahi dutelurraldetasunaren inguruko galdeketa antolatuz. Irurtzundarrak hitzorduaz gaztigatzeko *Gure Esku Dagok* garagardo festa antolatu du biharko. Barazki plazatik pasatzen direnek Katalunia, Eskozia eta Euskal Herrian egindako garagardok dastatzeko aukera izanendute. Jatekoa izanen da ere, taloak. Eta guztia zuzeneko musikarekin girotuta.



Maiatza

19-25

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Brigada Improductiva eta Itaca Band. Maiatzaren 19an, ostiralean, 22:30ean Etxarri Aranazko gaztetxean.

Manto de espuma. Maiatzaren 21ean, igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko elizan. Etxarri Aranazko abesbatza.

Dantza

Oskara plazara! Maiatzaren 20an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. Kukai dantza taldea.

Antzerkia

Escenicas. Maiatzaren 20an, larunbatean, 20:00etan Irurtzungo kultur etxean. Kukumix antzerki taldea.

Zinema

Un golpe con estilo. Maiatzaren 19an, ostiralean, 22:00etan eta maiatzaren 21ean, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

La alta sociedad. Maiatzaren 25an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Bizikleta irteerak

Altsasu-Donibikendi Arana-Altsasu (96 km). Maiatzaren 20an, larunbatean, 9:00etan Altsasuko Baratzeko bideko lokomotoratik.

Lareo (54 km). Maiatzaren 21ean, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. Barranka txirringulari taldeko mendi bizikleta taldea.

Mendi irteerak

Lizarrusti-Larraitx. Maiatzaren 21ean, igandean, 7:00etan Lizarrustitik.

Erakusketak

Ingurumena Altsasuko institutuan. Maiatzaren 21era arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean.

Itziar Nazabal arte eskola. Maiatzaren 22tik garagarriaren 4ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean.

Hitzaldiak

Si estamos conquistados, cómo recuperamos la independencia. Maiatzaren 19an, ostiralean, 19:30ean Olatzagutiko kultur etxean. Hizlaria: Tomas Urzainki Mina. **Gure Esku Dago.**

Literatura

Nemo kapitainaren azken bidaia. Maiatzaren 19an, ostiralean, 18:30ean Altsasuko Basoko Marin (Gartzia Ximenez 44). **Castillo Suarez.**



Tailerak

Ukendu tailerra. Maiatzaren 25ean, ostegunean, 18:00etan Ziordiko liburutegian. **Aintzane Ostolaza.**

Azokak

Bertako produktuen azoka. Maiatzaren 21ean, igandean, 10:00etatik 15:30era Lakuntzako plazan.

Berreskuratutako liburu eta diskoen elkartasan azoka txikia. Maiatzaren 19an, ostiralean, 9:30etik 13:30era Altsasuko San Juan plazan. **Kaleko**

elkartasan eta kultur elkarteak.

Bestelakoak

Herri festa. Maiatzaren 20an, larunbatean, 14:30etik aurrera Urdaianen. **Gure Esku Dago.**

II. Cava festa. Maiatzaren 19tik 21era, ostiraletik igandera Lakuntzako eliza ondoko karpan. Informazio gehiago 9. orrian.

Garagardo festa. Maiatzaren 20an, larunbatean, 19:00etatik aurrera Irurtzungo Barazki plazan. **Gure Esku Dago.**

Deialdiak

Altsasukoak aske. Maiatzaren 19an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko udaletxe parean.

Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da

Maiatzaren 19an, ostiralean, 19:00etan Etxarri Aranazko Kale Nagusiko 7. zenbakian.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Maiatzaren 19an, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Saint Mur espetxera martxa. Maiatzaren 20an, larunbatean, Sakanatik.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Maiatzaren 21ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Urdiain

Herri festa antolatu du GEDek

Urdiaingo *Gure Esku Dagok* (GED) herri festa antolatu du biharko. Erabakitze eskubidearen aldeko ekimenak 14:30erako herri bazkaria antolatu du. Haren ondoren bertsolariak ariko dira. 18:00etan, berriz, erabakitze eskubidearen alde dauden urdiaindarrak protagonista dituen bideoaren emanaldia egingen da. 22:00etan, afaltzeko, ogitarteko jana izanen da. Festa despeditzeko Alfonso Fon dj ariko da dantzarako giroa jartzen. Gainera, egun guztian plazan musika izanen da. Urdiainen, Sakanako beste sei herritan bezala, garagarriaren 18an herri galdeketa egingen da. Urdiaindarrak lurraldetasunari buruzko galdeketa batean parte hartzeko aukera izanen dute.

Ostiralero SAIOA
9:30ean
Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara



Esataria: Maider

Gaurko gaiak:

- Urdiaingo memoria ekitaldia.
- Arakilgo Kuriketan dokumentala.
- Hizkuntza-erabilera kale-neurketaren emaitzak.

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE



ALERTA GORRIA TALDEARI

Asteartea, 19:30ean, Guaixen ON-LINE ELKARRIZKETA

Egin zure galderak www.guaixe.eus bidez

Ezkaatza >>

SAKANA

Hizkuntza-erabileraren kale-neurketa 2016

Elkarrizketen laurdena euskaraz

Udazkenean egindako hizkuntza-erabilera kale-neurketak emaitza hori utzi du. 15 urtetan lau puntu igo da euskararen kale erabilera; 2 puntu azken 4 urteetan

Euskararen egoera zein den jakiteko, norberaren pertzepzio edo subjektibotasuna saihesteko,

datuak ezinbestekoak dira. Eskualde batean euskaraz zein presentzia duen jakiteko soziolinguistik hainbat datu objektibori erreparatzen diote: hizkuntzaren ezagutza maila, ikastetxeetako eta euskaltegiak matrikulazio

datuak, hizkuntzarekiko jendar-teak duen jarrera edota kalean euskaraz entzun daitezkeen elkarrizketa kopurua. Datu horiek euskararen aldeko sustapen-planak egiteko baliagarriak dira.

Soziolinguistika Klusterrak hiz-

kuntza-erabilera kale-neurketa egin zuen joan den urteko udazkenean. Klusterreko Asier Basurto Arrutik aurkeztu zituen datuak astelehenean. Basurtok hasieratik zehaztapen bat egin nahi izan zuen: “neurketa Sakanako kaleetako da; ezin da ziurtatu kalean behatutako elkarrizketetako hiztun guztiak sakandarrak zirenik”.

Neurketa egiteko udazkenean 4.583 elkarrizketa behatu zituzten, gutxira 13.723 hiztun. Kale-erabilera neurketaren akats tartea, gorabehera, %1,45ekoa da.

Alderaketa	
Eremua	Erabilera %
Euskal Herria	13,3
Nafarroa	5,7
Sakana	24,8

Erabilera

Lau elkarrizketatik bat euskaraz da

Sakanako kaleetan entzundako elkarrizketen laurdena da euskaraz, %24,8. Gaztelaniaz %72,9 eta beste hizkuntzetan %2,3. Euskara ezagutzari buruzko Sakanako

azken datuak 2001ekoak dira eta orduan sakandarren %36,8 dira elebidunak zirela jasotzen zen. Ikastetxeetako matrikulazio datuek erakusten dute sakandarren euskararen ezagutza datuek gora egin dutela. Baina ezagutza eta erabilera datuak parekatzea, gaur egun, ia ezinezkoa da euskaldunek gaztelania ere erabiltzen dutelako.

Euskararen kale-erabilerak azken 15 urteetan 4 puntu egin ditu gora, haietatik 2 azken bost urteetan. “Gorako joera leuna, konstante du”. Erabilera bost urtetik behin bina puntu igoko balitz 2069rako ibarreko elkarrizketen erdia euskaraz lirakeke. 15 urtetik 4 puntu igoz gero elkarrizketen erdia euskaraz 2106an lirakeke.

Hizkuntza	Kopurua	%
Euskaraz	3.405	24,8
Gaztelaniaz	10.004	72,9
Beste hizkuntzetan	315	2,3
Guztira	13.724	100

Bilakaera	
Urtea	Euskararen erabilera %
2001	20,7
2006	21,8
2011	22,8
2016	24,8

Herriak

Sakanako bederatziherritan egin zen hizkuntza-erabileraren kale-neurketa. Soziolinguistika ezaugarri desberdinak dituzten herriak direnez, emaitzak ez dira homogeneous. Basurtok urtetik urterako emaitzei baino joera orokorriari, bilakaerari erreparatzeko eskatu zuen. Ezagutzahandien den herrietan erabiltzen

da euskara gehien: Arbizon, Urdiainen eta Etxarri Aranatz. Euskal Herriko gune euskaldunetan gertatzen den moduan, beherako joera dute aurreneko bi herrietan. “Euskararen arnas-guneak diren herrietan joera hori ikusten da eta hizkuntza-politika bereziak eskatzen dituzte. Neurri propioak landu beharko dira”. Hizkuntzaren erabilera gorako joerarekin, Lakuntza dago, “ibarreko

goranzko joerarekin bat egiten duena”. Euskararen erabilera gutxien duten herriak Irurtzun, Uhartarakil, Iturmendi, Altsasu eta Olatzagutia dira. “2001eko eta 2011ko neurketan puntu berean zeuden. Orain bakoitzari goranzko joera desberdin bat neurtu zaio. Erritmo desberdinean. Aldeak sortu dira. Hortik ikasgaia ateratu daiteke: puntu beretik abiatuta nola iritsi dira batzuk erabilera handiagoa izatera?”

Euskararen erabileraren bilakaera				
Herria	2001	2006	2011	2016
Irurtzun	7,1	11,6	7,6	8,5
Uhartarakil	7,4	13,8	9,4	17,9
Lakuntza	25,8	27,3	33,7	30,9
Arbizon	83,3	74,2	79,3	76,8
Etxarri Aranatz	56,2	51,5	62,3	57,8
Iturmendi	6,3	23,6	7,1	27,7
Urdiain	53,8	46,6	59	44,4
Altsasu	7,5	8,9	7,8	13,9
Olatzagutia	0,6	8,9	7,2	3,7
Guztira	20,7	21,8	22,8	24,8

Adina

Sakanan euskaraz gehien hitz egiten dutenak haurrak dira. (2-14 urte). Helduak (25-64 urte) dira

hurrengo multzoa. Euskararen erabilera hirugarren taldea gazteak dira (15-24 urte). Eta, azkenik, erabilera baxuena adinuen taldeak du (64 urtetik gorakoak). Azken lau neurketetako joerak ez dira egonkorak.

Hurreketa helduek beti gorako joerari eusten diote. Gazteen erabileraren goranzko joera gelditu egin da. Hizkuntzaren normalizazioari begira desiragarriena haurren eta gazteen erabilera aurretik egotea da.

Adinkako erabileraren bilakaera				
Urtea	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
2001	23,1	22,6	16,9	22,2
2006	25,6	22,8	19,6	18,5
2011	27,7	26,4	20,4	18,1
2016	32	21,5	23,5	15,9

Generoaren arabera emaitzak

Emakumezkoen eta gizonezkoen hizkuntza-portaeren artean alde handirik ez dago. Emakumez-

koek gizonezkoek baino gehiago hitz egiten dute. Azken lau neurketetan beti izan da horre-

la, baina alde handiena, 4 puntukoa, joan den urtean izan zen. Euskal Herriko datu orokorretan ere emakumezkoak dira euskara gehien erabiltzen dutenak.

Generoen erabilera bilakaera			
Urtea	Orokorra	Emakume	Gizon
2001	20,7	25,3	22
2006	21,8	22,1	21,3
2011	22,8	23,2	22,4
2016	24,8	26,7	22,7

Haurren presentzia eta erabilera

Adin guztietako hiztunek elkarrekin hitz egiten dute egunerokoan. Baina hizkuntza-portaerei dagokionez, haurrak presente badaude

erabilera igo egiten da. Haurrik ez dagoenean helduek erdarara jotzen dute. Euskararen erabilera behera egiten du haurrak bakarrik egon-

Erabilera hizketa-taldearen arabera			
Hizkuntza	Haurren artean	Helduen artean	Haur eta helduen artean
Euskaraz	22,2	16,3	39,2
Gaztelaniaz	77,4	81,1	58,1
Beste hizkuntzetan	0,5	2,6	2,7

da. Baina haurrak eta helduak elkarriketa berean badaude erabilera igotzen da. Helduek haurrei hitz egitean erabilera %36,9koa da. Alderantziz denean, haurrak helduak berriz, %40,8koa. Haur-heldu hizketaldietan “dezente gehiago hitz egiten da euskaraz. Haurrak badaki gurasoei euskaraz egin behar diola. Eta gurasoek euskaraz egiten diete txikiei hizkuntza transmititzeko”.


Altsasuren kasua

Sakanako euskararen ezagutza azken datuak 2001ekoak dira. Salbuespena Altsasu da. Euskararen

ordenantza garatzeko udalak euskaldunen errolda egin zuen eta %34,7 euskalduna zela jakin zen. Basurtok kale-neurketaren inguruko aurkezpenean esan zuenez, “batez ere, populazioari begira,

Altsasuko datua arretaz jarraitu beharrekoa da. Seinale ona”. Sakanaren biztanleriaren herena Altsasun dago. “Bere erabilera Sakanako batz bestekora hurbiltzen ari da”.

Bideoa
Asier Basurto Arrutiri egindako elkarrizketa hemen:



JANATXO

ETXKO BAZKARI ETA POSTREAK ENKARGU BIDEZ PRESTATZEN DIRA

· Fernando Urkia kalea, 29 · Arbizon ·

· 686 654 382 ·
· 666 616 303 ·
· 687 371 939 ·



Marian Mendiola Barandalla

Gu eta besteak, bitxo arraroak

astekoa

Gazteleraz bada hitz potolo bat, otreddad, euskaraz itzultzen zaila dena. Guezgaren horiek dira, besteak (otroa-k). Gu bezalakoak ez direnak. Normala edo estandarra den horretatik ateratzen diren guztiak izaten ohi dira besteak. Nahigabe eta konturatzera normala-estandarra vs. bestea binomioarekin funtzionatzen dugu.

Eta, erne, "beste horiek" arrotzen poltsan sartzen ditugunean, bakoitzari bere etiketa ezarri eta

amaiezina den zerrenda osatuz. Demagun, potoloak, meharrak, betaurrekodunak, bere adinera-ko altuegia edo baxuegiak direnak, sudur edo belarri handiak, eskola kontuetan beste batzuk baino motelago edo azkarrago dabilzanak, gurea baino larru azal ilunago edo zuriagoa dutenak, feminitasun-maskulinitasun eredu zurrunetik ateratzen direnak (mari-mutiko edo marituak deituak), LGTBQIak edo hetero-

arauaren baitan kokatzen ez diren identitate guztiak, etab. Gehiago luza genezakeen zerrenda horri erreparatu, nor ez da inoiz "beste" sentitu? Modu batean edo beste guztiok gara edo izan gaitzake besteak. Bakoitza den bezalako izateko aukera ematen duten inguruak eraiki beharko genituzke, horrela inor ez litzateke "beste" izango eta sentituko. Baina, momentuz espazio horiek ez ditugunez, babes-esparruak ezartzen

ditugu; aniztasunaren errespetua, inklusioa eta berdintasuna bermatzeko. Baina, zoritxarrez "beste" horien eskubideak bermatzeko eta errespetatzeko dauden babeslekuak zeharkatu egiten ditugu eta hesiaren beste aldekoak zokoratzen, arbuiatzen, patologizatzen, dominatzen, zapaltzen eta estereotipo mordoak leporatzen hasten gara. Normaltasunaren bide zurrunetik atera diren horiei guztiei "bestearen etiketa"

ezarri eta zakarki zigortzen ditugu. -Fobia atzizkia erabiltzen dugu zigor sozial guzti horietako batzuk izendatzeko. Zeren beldur gara? Azken finean, ulermen eta onarpen falta da arazoaren muina.

Zenbait esparrutan politikoki diskurtso zuzena zein den bada-kigu, baina, beste zenbaitetan ez dugu cupidarik normaltasunaren kontrako bidetik doazenak baztertzeko, iraintzeko eta ikusezintasunean uzteko. Inertziak jota egiten ditugun ekintza horien atzean dauden arazoak ezbaian jartzea komeni zaigu, gure usteak hankaz gora jartzeko. Badugu zer egin, esaterako, maiatzaren 17aren harira, LGTBQI fobia-aren kontrako egunaren bueltan.

barrutik kanpora

Asmo berriak

Sakanan, adinekoendako, asmo berri eta garrantzitsu bat eraten ari da. Zein dira bere helburuak?

Hirugarren adinekoek izan ditzaketen beharrei dagokien zerbitzuei buruz, ikerketa sakon bat egin nahi da: menpekotasuna

(dependentzia), egunerako zentroa, babes-etxea, zahar-etxeak, jangelak...

Zerbitzu hauei buruz egon daitezkeen aukera ezberdinen funtsezko azterketa egiten ari dira. Sakanako biztanleek, etorkizune-

ko zahartzaroari begiratuta, gus-tuko izan ditzaketen zerbitzu ereduak aztertu. Eskualdean zerbitzu hauetarako zuzendu daitezkeen ondasun higiezinak aztertu.

Hirugarren adinekoendako ezarri nahi diren zerbitzuek suposa-

tzendutengastuen bideragarritasuna ikertu. Sakanako gizarte zerbitzuetako elkarteek finantzatu dute proiektua: Etxarri Aranatz, Irurtzun eta Altsasu. Bestalde, ibarreko udalerririk guztiek babes-ten duten proiektua da. Lanak aurrera doazeta Sakanako erakunde hauen nahia, egin beharra bukatutakoan, Nafarroako Gobernuari aurkeztea da, proposatutakoa gauzatzeko ahaleginak egin ditzan. Asmo hauek oso komenigarriak direla uste du SASOIAK.

Adinekoen behar eta gabeziei aurre egiteko era zuzen eta egokiena da, eta aipatutako zerbitzuen beharrei ikusten ditugun, Sakanako hirugarren adinekoendako, eragin onuragarria izan dezaketelako angaude. Era berean, behar-beharrezkotzat jotzen dugu instituzioek, kolektiboek, elkarteek, jubilatuen elkarteek... har dezaketen konpromisoa, martxan dagoen proiektu hau, indartu, bultzatu eta gauzatzeko.

Sasoia

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutuniek EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

guztiak LABURTU egiten dira. Gutunetan izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foru plaza, 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.eus edo 948 564 275 telefonoa.**

Euskal udaberria kalera!

Fran Balda Araña.

Sakanako Kalera Kalera dinamika

Aurreko neguan borroka hilabete potentea garatu genuen preso ohiek antolatutako Kalera kalera! dinamikaekin, Sakanan "Kalera Tour" arrakastatsua burutu genuelarik. Usurbilgo itxialdia bukatzearekin batera, preso ohien dinamika amaitu zen.

Borrokaldi horren testuinguruan EPPKren zuzendaritzak eztabaida prozesua iragarri eta eztabaida txostena publiko egin zuen. 2013ko eztabaida prozesuan finkatutako ildoaren garapena planteatzen zuen, hiru ardatzen bueltan: 1. Sakabana-keta amaitzea, kideak batuz. 2. Deserriratzea amaitzea, Kolek-

tiboa Euskal Herriratu. 3. Espetxeak hustea, kideak kaleratu. Hiru ardatz horien inguruan lege bideak jorratzea planteatu zuen, bi marra gorri zeharkatu gabe: damuketa eta salaketa. Era berean, planteatzen zuen ildo hau garatzen duen kide presoak EPPKren babes politikoa edukiko duela. Eztabaida abia-da onean doa, eta EPPK eztabaidaren ondorioak udan publiko egingo ditu.

Ezker abertzaleak hartu du preso ohien dinamika lekuakoa, Euskal Herria kalera! dinamika antolatuz. Amnistiaren aldeko astearen 40. urteurrenean, duela 40 urte poliziak hildako 7 herritarrei omenaldiak egin genizkien haien herrietan, eta Oreretan manifestazio nazionala egin genuen maiatzaren 13an. Udan ere ekimen potentea gartuko dugu. Era berean, martxak

antolatu ditugu biharko, larunbaterako, maiatzaren 20rako, Curtis, Puerto, Picassent, St. Maur, Fleury eta Roanera. Euskal Herri osotik autobusak abiatuko dira sei espetxeetara, bakoitzean 400-500 lagun bilduko garelarik. Sakanatik autobusa aterako dugu Etxarriko seme Juan Kutx Maiza dagoen St. Maurrera. Apuntatzeko, jo ezazue ohiko leku edo militanteengana.

MAITE ZAITUZTEGU!! KALERA, BORROKALARI, KALERA!!

Milesker Sakana

Oihane Agirre Ulaiar, Unai Otermin Benito eta beste zazpi lagun.

Berriz ere, gure egoera salatze- ra behartuak gaude. 2015eko abenduan, euskal preso eta iheslari politikoen askatasunaren

aldeko ekimen batean parte hartzeagatik, 27 nafar gazterekin batera, 10 sakandarrek 22.000€ arteko isunak jaso genituen. Onartu ezin genituen isunak errekurritu eta "Herria vs Mordaza" deituriko ekimena eraman genuen aurrera Mozal Legearen izaera errepresiboa salatze-ko.

Gurea ez da kasu isolatua, Euskal Herrian, forma ezberdinez, pairatzen dugun errepresioaren beste kapitulu bat baizik. Errepresioak hamaika aurpegi dituela salatu genuen. Nola ahaztu, beste askoren artean, aurpegi hau erarik krudelenean ezagutzen dituzten Altsasu edo Oreretako gazteak.

Atxiloketak, torturak, erailketak... Sakanan sobera ondo ezagutzen dugu errepresioaren aurpegi bortitza. Gure esku dago hori aldatzea, borrokaz etorki-

zun berri bat eraikiz.

Errepresio zuzenena gutxitu baduere, bide errepresiboa mantentzen du Estatuak, statu quoa zalantzan jartzen duen edonori kaiolaren burdinak etengabe erakusten jarraitzen du errepresioaren bidez.

Gu kolpatzeko, geroz eta ohikoagoa den errepresio ekonomiko erabili dute, hain agerikoa ez baina errepresaliatuen egunerokotasunean oztopo handia dena. Errepresio hau, gainera, errepresioa jasan dutenekiko elkartasuna kolpatzeko erabili dute. ASKI DA!

Bukatzeke, txalotzekoa izan dela dirua lortzeko garaian jasotako laguntza eta Sakanako herriek erakutsi diguten elkartasun eta babesa. Mila esker Sakana!


ERREPRESIOAREN AURREAN, HERRI ERANTZUNA!

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Mainer Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILA: Ruben Imaz Alcaide • maketazioa@guaixe.eus
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

KOLABORATZAILEAK: Erkuden Ruiz Barroso, Maialen Huarte Arano
ZUZENTZAILEA: Patxi Flores Lazkoz
ARGITARATZAILA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: GK • Ainhua Etxeberria Pikabea • gk@gkomunikazioa.eus
ADMINISTRATZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eus
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:



SEI ZORDUN HANDI: Nafarroako Gobernuak zordun handien zerrenda publikatu zuen atzo. Foru ogasunari 250.000 euro baino gehiago zor dizkioten 316 pertsona

eta enpresen artean ibarreko 6 enpresa daude. Lau eraikuntza arloarekin lotuta daude eta beste biak ostalaritzakoak dira.

sakanerria >>

>> **Urdiain**

Historiaren ondoren, egia

Otsoportilloko lezean Aranzadi Zientzia Elkarteak opatutako Francisco San Roman Galbeteren hezurak jaso ditu familiak. Haiek erraustu eta hilerrian utziko ditu, "beste hezurak non dauden badakigu"

"Laurogei urte behar izan ditugu gure senideei gertatu zitzaienaren inguruko egia ezagutzeko. Beraien etxeetatik indarrez eraman eta Otsoportilloko lezean erail zituzten. Ez zuten epaiketarik izan eta ezin izan zuten beraien burua defendatu. Bai. Historia ezagutzen genuen, baina, egia ezagutzeko unea iritsi da. Nafarroako gizartea egia ezagutzen hasi da, Memoria Historikoaren Legea beteaz aldatetaren gobernuarekin gauzatzeko doalako".



1936an erail zuten Francisco San Roman Galbeteren iloba Maite San Roman Goikoetxeak halaxe hasi zuen bere hitzaldia igandean, Franciscoren hezurak Urdiainera bueltatu zirenean. Otsoportilloko lana ez dela bukatu gaztigatu zuen Maitek: "badakigu leize horretan pertsona gehiago erail eta bota zituztela. Horregatik, Nafarroako Gobernuari hasitako azterketekin jarrai dezala eskatzen dugu".

Maitek azaldu zuenez, "familia askorendako Otsoportilloko lezea oroimen eta askatasun topaleku izan da eta izanen da 1980tik. Bertan, urtez urte, monolitoaren aurrean, familia handi bat elkartzeko gara gure senide eta lagunak omentzeko". Historiaren "itzalpean" gelditutako emakumeak izan zituen gogoan: "hamaika emakume, indarrez eta kemenez, bizitzari aurre egiteaz aparte, beraien seme-alabak askatasunean, zintotasunean, justizian eta maitasunean hezi zituztenak". Familiaren izenean, "une hunkigarri eta historikoa" posible egin zuten guztiei eskerrak eman zizkien: "Urdiaingo eta Etxarri Aranazko udalei, Nafarroako Gobernuari, Aranzadi Zientzia Elkarteari eta espreski Paco Etxe-

berriari eta Lurdes Errastiri".

Alkatea

"Gauzezeta bortxaz bere etxetik eraman zutena, egun argiz eta ohore osoz herrira itzuli da. Ongi etorri Francisco San Roman Galbete. Urdiainen eta gure bihotzetan beti egonen da toki bat zuretako". Hala despeditu zuen bere hitzaldia David Oroz Alonso alkateak. Udalak hila- ren 10ean onartutako adierazpenean jasotako pasartea da. Orozek gogorazi zuen 1936ko garilaren 18an "askatasuna eta aurrerapenean kontrako estatu kolpe faxistak errepublikako agintaritzaren legiti- moa gobernutik kendu" zuela. Eta Nafarroan gerra frontierik izan ez bazen ere 3.000 pertsona baino gehia-

go hil zituztela ere bai. Gogoan izan zituen "erreprezio kalkulatuaren ondorioz pairatutako egoera izugarriak, atxiloketak, kartzelatzeak, torturak, lan bortxatuak, neurtutako etengabeko umiliazioak..."

Urdiain halakoetatik ez zela libratu eta horren adibide Francisco San Roman Galbete jarri zuen. 80 urte pasatu behar izan dira guztiok genekien egia ofizialki ere egia bihurtzeko, esan zuen alkateak. Nafarroako aurreko gobernuak "gertatutako argitzeko inolako kemenik" ez zutela izan ohar- tarazi eta "egungo Nafarroako Gobernuari eta hainbat udaligurre eskerrik beroenak, gai honen inguruan behingoagatik ekimena hartzeagatik". Esker ona ere azaldu zuten "memoriaren inguruan lan handia egiten ari diren taldeei, familia asko eta askori beti horegon direlako berezkoa zutena, hau da, egia, justizia eta erreparazioa erreklamatzeari utzi ez diotelako". Aranzadi Zientzia Elkartearen lana eskertu zuen Orozek ere, "beraiek gabe, azalarazten lortzen ari dena askoz zailagoa izanen litzatekeelako".



Francisco San Romanen senideek bere hezurak jaso zituzten Ana Olló kontseilariaren eskutik.

Kontseilaria

Ana Olló Hualdek, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria, eman zion Francisco zenaren gorpuzkia bere familiari. Aurretik, Olló Urdiaingo Udalak memoria historikoarekiko konpromisoa eskertu zuen. Franciscoren familiak nabarmendu zuen, "81 urte hauetan bere memoria ahaztu ez" duela, "betiere bilaketan jarraitu izan duena. Gaur, gure historian inoiz gertatu behar ez zen kapitulu bat itxi ahal dugu".

Nafarroako Gobernuak historia-memoriarekin duen konpromisoa berretsi zuen. Konpromiso hori gorpuak hobietatik ateratzeko planarekin eta gorpuak identifikatzeko beharrezko DNA banku sortu berriarekin osatzen dela gaztigatu zuen Olló. Desagertutako pertsonen senideei dei egin zien DNA bankuan laginak emateko, "Franciscoren kasuan bezala, pixkanaka fruituak ematen ari baita".

Olló berretsi zuen Nafarroako Gobernuaren nahia "familiek desagertutako euren senideekin gertatu zena ezagutzeko" dela, "haien memoria lehengoratu eta duintzea. Asmo horretan familiek erakundeek babesa izatea nahi dugu. Badakigu babes hau berandu iritsi dela, baina ikusgarri egin eta bitartekoak jarri nahi ditugu, egin zaizuen bidegabekeria, ahal den neurrian konpontzeko".

Kontseilaria, azkenik, "egia, justizia eta erreparazioa eskubideekin batera, gertatu zena ez erreparatzeko konpromisoa" mantentzearen garrantzia nabarmendu zuen. "Gertatu zena oroitzeak lagundu behar gaitu gizarte etikoa eta justuago bat eraikitzen. Eta hau da Nafarroako Gobernuaren konpromisoa, giza eskubideen defentsan".

Aranzadi zientzia elkarte

Francisco Otsoportilloko lezetik atera zuenetako bat izan zen Paco Etxeberria forentsea. Udalen eta gobernuaren laguntzaz gorputzak ateratzeko lanari "formalki eta ofizialki" heltzeko aukera izan dela azaldu zuen, gaineratuz: "sor-

tutako informazioa, beraz, ez da inolako kondaira; egia da!" Etxeberriak esan zuenez, "Otsoportilloko memoria-tokiak biktima hauek utzi zituzten beste leze, koba, zulo eta bestelakoak irudikatzen ditu".

Forentseak azaldu zuenez, "sekula opatuko ez ditugun tokian daude. Ez zituzten soilik erail. Gainera, estali egin zituzten, opa ez zitzaten. Horregatik, haiek bilatze hutsak aparteko garrantzia du". Itxaropen faltsurik ezin dutela sortu gaztigatu zuen: "Franciscok sekula opatuko ez ditugun besteak ordezkatzen ditu. Lan hau zaila da. Batzuetan etsigarria izan daiteke; bilatu eta ez delako opatzen edo identifikazioak osotasuneko kasu gutxi argitzen dituen".

Horregatik, Etxeberriak nabarmendu zuen "Otsoportillo eta Francisco gainerako guztiak ordezkatzen ari dira". Eraildakoen bilaketak "balio demokratikoak finkatzeko eta giza eskubideen diskurtsoa zabaltzeko balio behar du". Gaztigatu zuenez, "sentimenduek ez dute preskribatzen. Bik-

timen senideek egia ezagutzeko eskubidea dute beti". Senide eta erakundeek emandako konfiantza eskertu zuen azkenik.

Eskaera

Aranzadi Zientzia Elkarteak Otsoportilloko lezean bederatzi pertsonen gorpuzkiak opatu zituzten. Haietako lau identifikatu zituzten. Bost identifikatzeko daude. Aranzadi Zientzia Elkarteak Lourdes Errastik deia egin zuen: "norbaitek uste badu bere senitartekoren bat desagertua izan zela eta non dagoen ez badaki, ondo legoke informazio hori guri emanen baligu. Horrela, agian, beste bost pertsonak identifika ditzakegu". Horregatik, DNA laginak ematearekin batera, "datuak balituzte ongi legoke jakinaraztea". Esaterako, Otsoportilloko gorpuzkiak metalezko kutxan zeinek eta noiz sartu zituen jakitea. Beste edozein datuk ere "ikerketak aurrera egitea lagunduko du".

Aranzadi kideak Otsoportillon berriro sartzeko asmoa dute. "Gai- nean dagoen legarra kendu eta arrasto gehiago gelditzen diren ikusiko dugu. Bederatzi pertsonen gorpuzkiak ditugu. Gehiago ez daudela ziurtatu behar dugu". Data zehatzik ez dute, baina udazken aldera izan litekeela esan digu Errastik.



www.pescaderiamariaeugenia.com
Arratsalde zabalik

Kontsumitu garaiko produktuak

maríaeugenia
Arrainak

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722
El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725

» Irurtzun

Aniztasuna, aleka aleka



Siriako arroz-errezeta prestatu zuten Irurtzunen larunbatean.

Mundu zabaleko txoko askotako arrozak egin dituzte larunbatean Irurtzunen. Maroko, Senegal, Gambia, Siria, Irurtzun, Atakondoa eskola, jubilatuen elkarte eta AEBko erara egindakoak izan ziren

Maialen Huarte Arano

Arroza egiteko era bakarra ez dago. Hala ikusi ahal izan zen Irurtzunen larunbatean. Mundu zabalean asko dira arroza kozinatzekeo erak. Batzuek berdurak tartekatzen dituzte, besteek oilasko zatiak, urdaiazpikoarekin

egindakoa ere bai edo beganoa. Zapore ugari zereal bakar baten dako. Mila modu, mila zapore. Aniztasuna aleka aleka erein zuten Irurtzunen.

Goizean goizetik jendeak hartu zuen lekua Foru plazako aterpean. Batzuek egurrezko koilarari eragiten zioten bitartean besteak kolorez betetako stand-ak ikusten aritu ziren. Asia, Amerika, Afrika ... kontinentek irudikatu zituzten. Lurralde bakoitzaren berezitasunak bildu zituz-

ten Atakondoa ikastetxeko ikasleek eta bakoitzari bere tokia egin zioten plazan. Aste guztian aritu baitziren lurralde bakoitzak duen aniztasuna lantzen, lurralde bakoitza pixka bat gehiago ezagutzen.

Prestatutako arrozaren dastatzea iritsi zen 13:30ean. Zapore desberdinak eta testura ezberdinak probatuta mahai inguru batean elkartu ziren denak paella jaterra. Egun borobila irten zen Munduari arrozaren bidez buelta emateko.

SAKANA

Udaberriko tonbola elkartutako establezimenduetan



Boletoko prest herritarren eskuetan biltzeko.

500 opari baino gehiago banatuko dituzte hilaren 15etik 31ra

Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzu Elkarteak Udaberriko Tonbola antolatu du. Ibarreko establezimenduetan erosketak egitera animatu nahi du ekimenak. Elkarteari atxikita dauden establezimenduetan erosketak egiten dituztenek tonbolako txartel bat jasoko dute. Hura zabaldu eta, zortekoa izanez gero, zuzeneko saria jasoko du. Hala, erosketarekin batera establezimendutik sari batekin aterako da zorioneko eroslea. Honako sariak lortu daitezke: ardo-botilak, artisau-goxokiak, kafea edota pastak.

» Uharte Arakil

Aralar Mendi elkarteari Nafarroako Gobernuaren aitortza

Nafarroako Carlos III.a Noblearen Gurutzea domina jasoko du Aralar Mendi elkarteak garagarriaren 17an. Nafarroako Gobernuak emandako ikur horrek "euren jarduera esparru zehatzetik foru erkidegoaren garapenari, proiektioari eta ospari ekarpena egin dioten" pertsona eta erakundeen lana aitortzea du helburu. Aralar Mendi Elkarteari Artzain Egunaren antolakuntzan egindako lana aitortu nahi izan du. Artzaintzaren gorazarre festak aurtengo 50 urte beteko ditu artzainen tradizioak eta produktuak sustatzen eta zabaltzen.

» Lizarragabengoa

Garai bateko ohiturak berreskuratzen

Urteak dira San Isidro eguna ospatzen ez zela Lizarragabengoa. Garai batean San Isidro jai eguna zen: goizean soroan edo azienda-

rekin lanean ibili ondoren lixarregotarrek arratsaldean jai hartzen zuten. Orduko ohitura zen herri guztia alkatearen etxean elkartzea eta auzate batekin ospatzea. Aurtengo, garai batean bezala, auzatea egin dute. Bordatxo elkartearen giro ederrean ospatu zen San Isidro Lizarragabengoa.



TERESA GOIKOETXEA ARREGI

» Arakil

San Isidro elkartuta



Arakildar mordo bat elkartu zen Itxasperi ermitanatzokoan, San Isidro egunean. Mezaren ondoren ibarreko soroak bedeinkatu zituen apaizak. Ermitaren abarroatemenaz gozatzeke aukera izan zuten hurbildu ziren arakildarrek. Kontu kontari izan ziren jan-edatekoekin.

»

Jolas batean bezala oroitzenak altxor bihurtuta

Kuriketan dokumentala aurkeztu du Labrit Multimedia: Arakilgo garai bateko bizitza islatzen dute bailarako bizilagun helduenen oroitzenak eta egungo haur eta gazteen antzezpenerekin.

Maialen Huarte Arano



Haurtzarora eta nerabezarora nola bizi zuten gure aitona-amonek ezagutzen dugu askok. Istorio ugari kontatu dituzte sutondoan. Baina, batzuk gordetzen ez badira ahaztu egiten dira. Arrisku hori ekidin nahian lanean ari da Labrit Multimedia. Hala, Arakilgo Udalaren eskariz ibarreko oroitzenak bildu dituzte dokumentalean. Lehena, 2014an aurkeztu zuten: Lau Haizetara. Oraingoan oroitzen horiek hartu eta zenbait pasartetan, zenbait bizitzako unetan egin dute geldialdia: Kuriketan. Haurtzarora eta nerabezarora Arakil bailaran.

Jaiotzak, ospakizunak, inauteriak, herrietako jaiak, elkarrekin egiten zituzten harremanak, gerra garaia... zenbait pasarteak irudikatu dituzte egun haur eta gazte diren arakildarrek. Hitzak eta pasarteak tartekatzen dira, hortaz. Laburbilduma horren bitartez, sutondoan esaten eta kontatzen ziren horiek betirako gorde ahalko dituzte.

» Olatzagutia

Igerilekuko taberna errentan hartzeko aukera

Erburua Olazti udal elkarteak herriko igerilekuko taberna errentan emateko deialdia egin du. Uda sasoiaren zabalik izanzen dira igerilekuak eta tarte horretarako emanen da errentan taberna. Taberna kudeatzeko kontratazioa prozedura irekiaren bidez emanen du. Eskaintzak hilaren 31era arte aurkeztu daitezke udaletxean. Esleipenaren aurrekontua 50 eurokoa da (BEZ kanpo). Hain zuzen, ur, argi, gas eta zabor biltzeko gastuen pare. Deialdiaren plegua www.olazti.com web orrian kontsultatu daiteke.

»

Plaza bete kolore



Sasoiko landareak, baratzerakoa, edergarriak, ezitia eta eratorriak, Hur olio eta hurrak, zaku termikoak eta bestelako produktuak ikusi eta erosteko aukera izan zen Olatzagutian atzo. Lore eta landare azokaren 10. urteurrenean txikienendako tailerak ere izan ziren.

» Altsasu

Kafe Konpondu bueltan da



Maiatzaren 31n, asteazkenean, 17:00etan, Gure Etxea eraikinean

Batek duen jakintza besteekin partekatzea eta horrela matxuratutako edo hautsitako gauzak konpontzea. Hori da Kafe Konpondu ekimenaren asmoa. Bide batez, erabilitako tresnei bigarren aukera bat ematea lortu nahi dute, erosi eta bota dinamika kontsumistatik aterata. Birziklatze Laborategiaren ekimena da Kafe Konpondu. Bigarren edizioan Aurelio Lucasek sokazko aukien ipurdiak konpontzen irakatsiko du. Izena eman nahi duenak 012 doako telefonoan eman beharko du.

SAKANA

LHko kirol ikasketetarako izen ematea heldu den astean zabalduko da

Sarrera proba espezifikotarako inskripzioa hilaren 25etik 31ra eginen da

Altsasun dagoen Sakana Lanbide Heziketa institutuan araubide bereziko kirol ikasketak eskaintzen ditu: mendi-kirolak eta eskalada. Bi kurtsoko ikasketak dira eta bietan eman daiteke izena. Heldu den ikasturtean ikasketak horiek egin nahi dituztenek proba espezifikotarako izena eman beharko dute. Hori, ikastetxetik pasaz, haren www.ifpalsasua.net web orriaren edo iestexer@educacion.navarra.es e-postaren bidez egin daiteke. Deialdiari buruzko argibide guztiak Nafarroako Aldizkari Ofizialean daude.

Altsasu

Hobekuntzak Dantzalekuko igerilekuan

Udako igerilekuak aurki zabalduko dituzte eta haiek behar bezala egon daitezten udalak, aurretik, hainbat lan eginen ditu. Umeen igerilekuko hoditerian ur ihesa dago eta hura konpontzeko 3.000 euro bideratuko ditu udalak. Igerileku bereko ura hartzeko punpen hoditeria moldatzeko 600 euro inbertituko dira. Aisialdi igerilekuan punpak jartzeko 1.800 euro jarriko ditu udalak. Dantzalekuko hiru igerilekuetako iragazkietako harea duela 10 urte baino gehiago ez direnez, aldatu hura eta krepinak aldatzeko 11.400 euro jarriko dira. Azkenik, ez irristatzeko pintura emanen da aisialdi eta igeriketa igerilekuetan eta horrek 3.200 euro eskatuko ditu. Guztira 20.000 euroko inbertsioa eginen du udalak Dantzalekun.

SAKANA

Sakanako bideak Nafarroako Gobernuaren ibilbide gidatuen eskaintzan

Ekonomia Garapenerako Departamentuak ibilbide gidatu turistiko-en programabat aurkeztu du. Hori esker, Nafarroako natura-aniztasuna, paisaiak eta kultura-ondarea ezagutarazi nahi da. Maiatzaren 20tik lastailaren 28ra bitartean 15 bidezidorretatik egindako ehun ibilaldi inguru, hiru ibilbide luze eta Santiago bidea barne hartzen ditu. Lehen kasurako jarduerak bost euroko kostua du, eta gainerakoek 12 euro balio dituzte, Iruñetik joaten da autobusaren bidaia barne. 2.000 bat pertsonak parte hartzea aurreikusitako da. Irurtzungo saien balkoia, Urbasako mendizaleen ibilbidea, Urederra, GR-20 eta GR-12 daude. [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

Altsasu

Eraso homofoboa salatu dute



Altsasuko mugimendu feministak jakinarazi duenez, paseatzen ari zen bikote batek eraso homofoboa jasan zuen pasa den astean. Mugimenduko kideek adierazi dutenez, "erasoa izugarriko errespetu falta" dela pentsatzen dute, "erasoaren arrazoi bakarra homosexualitatea izatea baita". Altsasuko mugimendu feministak azaldu dutenez, "genero eta sexu-tara lotuta dauden fobia guztiak, homofobia bezala, sistema patriarkalean oinarrituta daude; sistema hauxe izan da ere emakumeak zapaltzen dituen". Erasoa salatzearekin batera, Altsasuko mugimendu feministak "gure laguntza eta elkartasun osoa eskaintzen diogu eraso jaso duen bikoteari. Penagarria izanda ere, jarraera hauek ohikoak dira gure inguruan. Horrelako jarrerari uko egitea eta ozen salatzea eskatzen dugu". Azaldu dutenez, "aldarrikapen feminista eta heziketa afektibo eta sexual egokia, orientazio sexual eta genero identitate erasoekin bukatzeko zutabe garrantzitsuak direla ulertzen dugu". Azkenik, "eskubide sexuarekin aldarrikatzaile eta eraso homofobo eta sexistez aske den herri bat exijitzen dugu".

Erasoak salatzeko:

Altsasun.erasorikez@gmail.com

Altsasu

Xurruten gastronomia festa

Alde Zaharreko tabernak elkartzen dituen Xurrut elkarteak pintxo asteburua antolatu du. Gaur hasi eta domeka bitartean Gautxori, Koxka, Lezea, Xume eta Urtzi tabernetan gastronomia-gutziak dastatzeko aukera izanen da, eguero, 19:00etatik aurrera. Hori horrela izateko makina bat proba egin dituzte aurreko egunetan bost tabernetako sukaldeetan. Pintxo eskaintza bereziarekin batera, haiek dastatzen dituztenak sarien zozketan sartuko dira, afariak eta produktu loteak. Xurruteko kideek miniaturazko gastronomiaz gozatzeko gonbidapena egin dute.

Altsasu

Gurasoek Espainiako Auzitegi Nazionalak auziaren tramitazioa eteteko eskatu dute

Espainiako Auzitegi Gorenak Iruñeko edo Madrilko auzitegien arteko eskumen-gatazka ebatzi bitartean tramitazioa gelditzea exijitu dute

Hamabostero bezala Altsasuko auzian auzipetutakoen gurasoek kontzentrazioa egin zuten Iruñean atzo. Oraingoan justizia alorreko profesionalen babesa jaso zuten elkarretaratzean. Espainiako Auzitegi Gorenak auzia Iruñean edo Madrilan epaitzea ebatzi behar du. "Gaur egun Espainiako Auzitegi Nazionalak Nafarroako Lurralde Auzitegiaren errekerimenduari kasurik ez egitea eta kasua tramitatzen jarraitzea erakunde horrekiko errespetu falta handia iruditzen zaigu".

Euren ustea berretsi zituzten: "gertakarien neurrigabekeria eta lege eta hedabide proportzional-



tasun falta". Altsasuko auzian oinarriko eskubideak urratu zirela berretsi zuten, besteak beste, "intimitatearena eta errugabetasunaren presuntzioarena, esate baterako; eta espetxeratze kaute-lazko neurria soberazkoa bezain krudela". Epailen naturalaren esku-

bidea bermatzeko eta auzia Nafarroan epaitzeko eskatu zuten gurasoek. Auzian "proportzionaltasun, justizia eta ekitatearen printzipioak nagusitzea" nahi dutela gaineratu zuten, Azkenik, 6 hilabete preso daramaten hiru gazteen askatasuna aldarrikatu zuten.

Altsasu

"Bizitzen ari garen injustizia honen aurrean beste behin, eskerrik asko"

Igandean urte erdia bete zen Guardia Civilak Altsasun sarekada egin zuela. Zazpi gaztek espetxean bukatu zuten eta ordutik han dira Jokin, Adur eta Oihan. "Haiekin batera beste 5 auziperatu zentzurik gabeko epaiketa baten zain daude; beste bi adin-txikikoek etorkizun zalantzarria dute aurrean". Preso daudenen askatasuna aldarrikatzeko mobilizazioa handi hartu zuen Altsasuk berriro.

Nabarmendu nahi izan zuten "operazio hartarako dena ondo prestatu zutela, polizia-muntaia, operazio politikoa eta gezur zein informazioaren manipulazioa. Faltsututako errealitate bat saldu nahian jarraitzen dute, baita konturik sinesgaitzenak sortzen ere".

Ferietako liskarrean auzipetutako sei gazte eskerrak ematera



kioskora igoziren: "eskerrikasko orain arte laguntza, elkartasuna, atxikimendua, adierazi duzuen guztioi. Haiek kalean eta hiru lagun preso egotean "eroso" ez daudela aitortu zuten. Horregatik, hiru preso gaztean Altsasun nahi dituztela esan zuten. Horrekin

batera, "muntaia" salatu zuten. Altsasun bizi eta lan egin nahi dutela aldarrikatu zuten. Azkenik, gazte auzipetuek "bakoitzak ahal duen moduan, gu laguntzen eta hiru presoak gurekin izan arte eta hau guztia despeditu arte", laguntzen segitzeko eskatu zuten.

IRAKURRI GOZATU ETA OPARITU

LIBURUAK EROSTEKO 30 EUROKO 5 TXEKEREN ZOZKETA

IRABAZLEAK: Monika Etxebarria (Arbizu)
Alaitz Díaz (Altsasu)
Saioa Uzkudun (Lakuntza)
Urtzi Gartzia (Ziordia)
Carmen Irigoien (Urdiain)

1001 mundu

Txekeak liburutegietan jaso ahal izanen dituzue.

Hara zer dien Europako migrazio politikak "Harresien guda" bezala defini daitezke

Zergatik? Gizakien mugimendua sorrarazten duten enpresak, giza horiek mugetan geldiaraziz aberasten diren enpresa berak direlako. Indra Estatuan, adibidez. Gibraltar: lurralde aberatsa pobretik bereizten dituzten 14 kilometro. Estatuko migrazio politika ezin uler daiteke Marokoren parte hartzerik gabe.

Europatik presioa jasotzen jarraitzen du, migratzaileen mugimendua frenatzeko, horretarako Giza Eskubideak urratu behar baditu ere. Eta, bestetik, Afrika Subsahararra irekitzen ari da, bertako migratzaileen erregulazio prozesuak hasiaz.

Jada ez dago deportazio masiborik Marokon, baina gaur egun amankomuneko fosoak badaude Maroko eta Algeria artean. Militarrak kontrolatuak.

Migratzaileez hitz egiterakoan, gizon ez baten irudia dator kigunagusiki. Baina makina bat emakume eta adin txikiko dagomigratzaileen artean. Hori bai, ez ditugu ikusten. Harresien gudak errazten dute Europak behar duena pasatzeko. Eta Europak gaur behar duena esklabutza da, esklabu berriak. Europak migranteak behar ditu sexurako, organoetarako eta etxeko lanetarako. Ez ditugu ikusten, baina gure hirietan daude. Adin txikiko esklabu sexualak. Eta errealitate bortitz hau ikustarazi egin behar da.

Ziurtasunaren argudiopean, Europa harresiz bete da. Ederra negoziario. Mafiak ez dira behar bezala zelatzen. Zenbat eta militar gehiago mugetan, orduan eta mafia gehiago.

Europako ezker aldeak, ez dio benetako erantzunik ematen egoerari. Greziak Europak eskatu diona onartu du, errefuxiatuak jasotzeko. Siriako gerrak bi maietako migranteak sortu ditu, eta errefuxiatu eta migratzaile ekonomikoaren arteko banaketa ekarri du.

Aylan bezalako hildako haur asko dago munduan zehar egunero. Tarajal-eko kasua. Ez dago inongo kondena irakoraindik. Estatuak ez du erparaziorako memoriarik. Hildako asko ditugu bide bazterretan. Eta heriotza horiek denak saihestu litezke.

Sakanako Immigrazio Zerbitzua

SAKANA

Andra Mari ikastolan LOMCEren proben kontra

Andra Mari ikastolako enpresa batzordeak deituta ikastetxeko langileek LOMCE legearen eta haren ebaluazio proben kontrako kontzentrazioak egin dituzte atzo eta gaur goizean. Hezkuntza legearen azken aldaketak Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. mailan eta DBHko 4. mailan ebaluazio probak egitea ekarri du. Baina proba horiek ez dira Nafarroako ikastetxe gutzietan egingen, batzuetan bakarrik. Horietako bat Andra Mari ikastola da, zehazki, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleak. Horregatik deitu dituzte protestak.

Enpresa batzordeko ordezkariak esan dutenez, "proba horiek ez dute inongo balio akademikorik eta emaitzak ez zaizkie komunikatuko ez familiei, ez ikastetxeei.



Elkarretaratzea egin zuten enpresa batzordeak deituta.

Batxilergoko 2. mailan ikasturte bukaeran egingen diren probak aldiz, selektibitatearen ordezkaria izanen dira". Eta gaineratu dutenez, "kontua ez da soilik LOMCEri aurre egitea,

baizik eta hezkuntza komunitate osoaren parte-hartzearekin hezkuntza sistemaren hobekuntza integrala helburu duen ebaluazio sistema propioa eraikitzea".

Altsasu

Lanak Otadiako ermitan

76.000 euroko aurrekontua dute eta parrokiak ez du dirurik. Lanak ordaintzeko diru bilketa egiten ari dira herriko kutxa eta banku gutzietan

Otadiko Kristo Deuna ermita kontopontzeko lanak joan den astean hasi ziren. Eraikinaren barrualde guztia aldamiotz beteta dago. Han lanean ari diren langileek elizbarrutiko arkitektoak aurreikusitakoa berretsi dute: ermitako bobeda oso egoera txarrean zegoen. Bobedak eta haiei eusten zieten egurrezko egitura kendu dituzte eta teilatua begiratzeko asmoa dute. Lanak despedituta ermitako teilatuaren egurrezko egitura



agerian uztea da.

Itajun batek agerian utzi zuen teilatua egoera txarrean egon zitekeela eta abendutik itxita dago. Maiatzeko gurutzeko elizkizuna han egin ohi da, baina

ermitaren egoeratik elizan egin zen. Festetako egun nagusian, irailaren 14an, ermitak beste elizkizun handi hartzen du. Asmoren nahia ordurako eraberritua ikustea da.



Udalak Idertzagain kaleko jolas parkea konponduko du

Altsasuko Udalak aurrekontuan aldaketa egin eta Idertzagain kalean dagoen haur parkea berritzeko 17.000 euro bideratuko ditu. Erabileragatik eta denboraren pasagatik zorua eta haur jolasak

berritu behar dira. Hura erabiltzen duten haurren gurasoek jolas parkea berritzeko eskaera aurkeztu zuten udaletxean joan den urtean. Lanak emateko deialdia egingen du udalak aurki.

Javier Ollo Martinez alkateak nabarmendu duenez, jolas parkeak baldintza egokietan egotea ezinbestekoa da istripuak eragozteko eta

hala udalari inork erreklamaziorik ez egiteko. Udalak joan den urtean Baratzeko Bide eta Otadiako jolas parkeak berritu zituen. Ollok azaldu duenez, udalak herriko jolas parkeak pixkanaka berritzeko konpromisoa gauzatzen ari da. Aipatutako hiru jolas parkeez aparte Altsasun laugarren bat bada, Zumalakarregi plazan.

Arbizu

Haur eta helduak elkarren ispiluari begira

Arbizuko Udalak eta Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) haurrei eta haien gurasoei zuzendutako tailerra antolatu dute. Ispiluari begira izena du eta Lehen Hezkuntzan ari diren ikasleei eta haien gurasoei zuzenduta dago. Tailerraren bidez gurasoen hizkuntza-ohiturez eta eredu garritasunaz hausnarketa bulkatu nahi da. Horretarako abiapuntua haurren begirada izanen da,

eta lan-eremua haien inguru hurbila; etxea, ikastetxea eta kalea. Gaia, berriz, eguneroko harremanetan sortzen den komunikazio-hizkuntza.

Arbizuko Udaletik azaldu dutenez, ikastetxea eta etxea dira, zalantzarik gabe, heziketaren zutabe nagusiak. Irakasleak eredu dira haurrindako, eta baita gurasoak ere. Tailerrari dagokionez, bialdeditu. Haurrek ariketa bat egingen dute errealitatea modu bisual batean, kolore eta marrazkien bidez adierazteko. Era horretan, bakoitzak eguneroko hizkuntza-ohiturak deskribatuko ditu.

Segituan, haurrek haien lanaren aurkezpena egingen diete helduei. Ondoren, elkarrekin errealitate horretaz hausnartu eta, aldaketa beharra izanez gero, aukera berriak aztertuko dituzte.

Maiatzaren 27an

11:00etatik 13:00etara, udaletxean. Asteazkenean arte eman daiteke izena liburutegian: 948017777 edo liburutegia@arbizu.eus

Ziordi

Peru laguntzeko material bilketak segitzen du

Materiala Altsasuko Frontoiko zeharbidearen 14. zenbakiko udalaren bajeran jasotzen ari dira, asteazkenetan, 11:00etatik 13:00etara



Asuncion Mendoza ziordiarra Errukiaren Andre Mariaren Ahizpen kongregazioko moja da eta 40 urte daramatza Perun, Limatik 25 km-tara dagoen Machayn. Pobretutako herria, uholdek berriki ezer gabe utzi ditu. Mendozak jakinarazi duenez, haur-oihalak, sendaketak egiteko gazak eta bendak, emakumeendako garbiketa eta higiene produktua, ikastetxeetarako aukerak eta mahaiak, bizikletak, 10 ordenagailu, arropak eta jatekoak.

Ayuda Contenedores gobernuz kanpoko erakundea Altsasun bilketa egiten ari da eta, bereziki, negurako arropak jaso nahi dituzte. Botikak bidaliz gero zerga pagatu behar dute, dirua bildu eta Perura bidaltzeko asmoa dute, han eros ditzaitez. Baita beharrezkoa duten gainontzeko ere. Baina laguntza betetako edukiontzia Perura bidaltzeko ere dirua behar dute. Gaur egun 1.304 euro jasoak dituzte. Baina kopuru horri hitzemandako kopuruak gehituko zaizkie: 2.000 euro Sakana kooperatibak, 600 euro Ziordiko Udalak eta 300 euro Rural Kutxak.

Ekarpenak egiteko

Caixabank-en, **2100 3729 21 2210046559** kontu korrontean.

Bakaiku

Gazte asanbladak 20. urteurrena ospatu du

Larunbaterako prestatu zuten egitarau zabalarekin Bakaikuko Gazte Asanbladak bi hamarkada bete izana ospatu zuen. Frontenis txapelketako final erdienen ondoren, talde argazkia egin eta zuhaitza landatu zuten. Bertso bazkarian Saats Karasatorre eta Eneko Lazkoz aritu ziren bertsoetan. Mahai burukoak eginda, frontenis txapelketako finalerara joan ziren. Hangoak eginda triki-poteoari ekin zioten. Ogitartekoak afaldu eta gero, dantzarako musika Osoron dj-ak jarri zuten.

» Irurtzun

Udalak 20 pertsona kontratatuko ditu



Irurtzongo Udalak 1.892.225 euroko aurrekontua izanen du aurten, joan den urtean baino 5.000 euro gehiago. Haietatik 190.000 euro enplegua sustatzera bideratuko ditu eta horren bidez 20 pertsona kontratatuko dituzte. Hiru motako kontratazioak egingen ditu Irurtzongo Udalak: Babestutako Gizarte Enplegua (91.000 euro), Nafar Lansare (58.000 euro) eta igerilekuko udako kanpaina (41.000 euro).

Gainera, Irurtzongo Udalak gizarte arlorako hainbat diru sail ere bideratu ditu, esaterako: Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitaterako 55.200 euro, berdintasun programetarako 6.600 euro, kirol eta kultur taldeendako diru-laguntzetarako 65.000 euro. Gainera, aurrekontu parte-hartzaileetarako 35.000 euro bideratu ditu udalak. Irurtzundarrek parte hartze prozedura baten bidez zein lan egin behar den erabaki dute eta aurki jakinen da egingen den lana. Bestetik, inbertsioetarako 211.000 euro ditu udalak. "Dena den, inbertsioen atala Nafarroako Gobernuaren Tokiko Azpiegitura Planean onartutako lanen arabera izanen da. Proiektuak egitea eta zein urteetan planaren arabera izanen da", azaldu du Aitor Larraza Carrera alkateak,

EH Bilduko zinegotzien aldeko botoarekin eta Independenten eta UPNren abstentzioarekin onartu zen aurrekontua. Alkateak azaldu duenez, "gainerako udal taldeek hilabete izan dute aurrekontu proposamena aztertze eta ez zuten inolako ekarpenik egin. Bozketan abstenitu egin ziren, azalpenik eman gabe".

» Lakuntza

Ezohiko cavak dastatzeko festa



Sakandarrak topa egiten Lakuntzako frontoian, asteburuan ere aukera egonen da.

Gaur hasi eta igandea bitartean II. Cava festa ospatuko da

Eliz dorrearen azpian jarritako karpak hartuko du Cava festaren bigarren edizioa. "Erdigunetik gertuago" jarri nahi izan dute horrela. Handik pasatzen direnek Sant Sadurni d'Anoiako primerako 10 cava dastatzeko aukera izanen dute. Publizitateak hain ezagun egin dituen markak ez dira izanen, bai zik eta familia xumeek ekoiztutakoak, izen ona dutenak. Gama ertain eta altuko cavak izanen dira dasta-gai, 2 eta 3 eurotan. Kopa eskuratzeko 2 euro ordaindu beharko

da. Edanarekin batera jatekoa izanen da ere. Txomin parrila enpresa arduratuko da haiek prestatzeaz. Menuan parrilan prestatutako bertako produktuak izanen dira, Nafarrak gehienak. Txingurriye elkarteko kideak arduratuko dira zerbitzatzeaz.

Sant Sadurni d'Anoiako ordezkartzaren buru Maria Rosell Medall alkatea izanen da. Bera bertan dela baliatuta, eta Lakuntzako Udalaren parte hartzearekin, herriko Gure Esku Dago taldeak ekitaldia antolatu du bihar eguerdirako. Bestalde, bi herrietako

dantza taldeak elkarrekin dantza ikuskizuna prestatzen ari dira, hori ere larunbaterako.

Festaren jatorria

2014ko festetan San Sadurni d'Anoiatik correfoc ikuskizuna eskaintzera etorri ziren. Adiskidantza sortu eta lakuntzarrek bisita bueltatu zieten. Kataluniarrek euren produktu izarraren, Cavaren inguruan, Lakuntzan festa antolatzeko proposamena luzatu zieten. Lakuntzako Udalak erronkari helduzion bi herrien arteko adiskidantza sendotzeko aukera zelako.

Cava eskaintza

Llopart, 1907, Capdevila Pujol, Varias, Agusti Torello Mata, Pere Mata, Sumarroca, Vilar-nau, Muscándia eta Oliver.

Egitaraua

Maiatzak 19, ostirala

19:30ean Cava gunearen irekiera.

22:00etan Brindis herrikoa.

2:00etan Cava gunearen itxiera.

Maiatzak 20, larunbata

13:30ean Cava gunearen irekiera.

13:30ean Ekitaldia plazan, Katalunia Euskal Herria.

14:30ean Herri bazkaria.

19:00etan Sant Sadurni d'Anoiako eta Lakuntzako dantzarien saioa.

Ondoren, Sant Sadurni d'Anoiako Tabalots batukada taldea.

20:00etan Katalunia eta Euskal Herriaren arteko brindisa.

Dantzaldia Elebitan taldearekin, karpan. Afariak izanen dira.

2:00etan Cava gunearen itxiera.

Maiatzak 21, igandea

11:00etan Cava gunearen irekiera.

18:00etan Cava gunearen itxiera.

»

Bertako produktuen azoka igandean



Herritarrek kalean jarritako postuetako produktuak ikusten.

Bertako ekoizleei bulkada emateko ideiarekin segitzen du Lakuntzako Udalak. Horregatik, berreskuratu zuten herriko azoka joan den urtean. Bertako ekoizleen eta artisauen produktuak lakuntzarren eta bisitarien eskura jarritz haiek ezagutzera eman eta tokiko ekoizpenen kontsumoa sustatu nahi du horrela udalak.

30 bat salmahai izanen dira gutzira. Bertako ekoizleak, gehienak, plazan izanen dute euren tokiak eta Mikel Arregi kalean izanen dira

Egitaraua

10:00etatik 15:30era Bertako produktuen azoka.

Artisau produktuen txokoa.

11:00etan Cava gunearen irekiera.

12:00etan Ganadu erakusketa.

12:30ean Segia erakustaldi herrikoa, eliza atzean.

13:00etan Aizkolariak, plazan.

14:30ean Herri bazkaria, cava gunean.

Oharra: Igandean Mikel Arregi kalea, plaza inguruan, eta erdiguneko beste kale batzuk oinezkoendako izanen dira.

Artisauak

Artisaua	Salgaia
Pedro Maria Olea Armendariz	Zurezko Jostailuak
Alazne Juaniz Ezpeleta	Arropa
La Casa De Las Arañas	Zeramika
Xabier Iturrioz-M ^o C. Del Rio	Oinetakoak
Ioseba Gurrutxaga Leatxe	Erraldoiak / Kilikiak
Tomas Mauleon	Zurezko osagarriak
Julio Molinuevo Boyarizo	Zurezko Jostailuak
Jose Luis Anso Zelaieta	Ezpelezko goilarak
Maria Esparza	Belarritakoak / Zeramika
Enara Insausti	Argazki-albuma
Iñaki Lacalle Zubiria	Zura

Bertako ekoizleak

Postua	Salgaia
Utxama gazta	Ardi gazta
Isidro Arregi harategia	Txerri hestekiak
Postiñeneko gazta	Ardi gazta
Vialdeagurea	Eztia
Mañeko	Pastelak
Reino De Navarra	Barazki kontserba
Migeltxo Saralegi	Taloak
Oiaralda SL	Barazkiak
Sojo Natura	Belar kremak
Xabi Aizpeolea	Ardi gazta
Goiuri gozotegia	Pastelak
Ollaondo	Arantzua ekologikoa
Lezaetako Ogia	Ogi ekologikoa
Jamones Mendiola	Urdaiazpikoa
Gastaka Barbara	Pastelak
Erlantz	Eztia
Hatortxu Rock	Rock kontzertua
Ledeako arandegia	Ardoa
Agirre Harategia	Txerri hestekiak

artisauak. Aurrenekoen salmahaien artean dabilzanak txistorrak, gazta, pastelak, goxokiak eta bestelakoak opatuko ditu. Bigarren postuetan poltsak, bitxiak eta gehiago opatuko ditu. Gainera, 11:00etatik aurrera, eliz dorrearen ondoan dagoen karpan cava gunea

zabalduko da. Han bertan Nafarroako txekorra eta basatxerria menua duen herri bazkaria izanen da.

Eguerdian, bestalde, Lakuntzako azienda erakusketa egingen da eta behiak, ardiak, ahuntzak, pottokak, zaldiak, txakurrak... ikusteko aukera izanen da.

40 tanatorios

IRACHE

aniversario

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70

@Grupolrache

Grupolrache

www.tanatoriosirache.es

Iosu Anduaga Goñi

VII. urteurrena

Gu biyotzetan zaude

Zu fameliyek

Mayatzien 20an



Ramoni Mujika Mazkiaran

(Gotzon Urrizola, Iñigo Aritzita ikastolako irakaslearen amaginarreba)

Urak dakarrena urak daroa, zuk emandakoa gurekin gelditzen da.



Jose Miguel Olano

VII. urteurrena

Beti egonen zara gure bihotzean

Lakuntzako elizan bere aldeko meza, maiatzaren 21ean, igandean, goizeko 11:00etan izanen da.

Zure familia

Oroigarriak egiten ditugu



gk KOMUNIKAZIOA

948 564 275
Foru plaza, 23-1 Altsasu
gk@gkomunikazioa.eus



Pedro Garmendia

(Altsasu Institutuko irakaslea)

Eskerrik asko gure seme-alabei irakatsitakoagatik.

Goian Bego

APYMA Aralar



Marmoles San Miguel

Hilariak
Kolunbarioak
Gurutzeak
Estelak
Hilobiak
Panteoiak
Inskripzioak
Grabatuak
Panteioen zaharberitze eta garbiketa

948 260 098 - 683 136 423

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

3 LANA/NEGOZIOAK

5 IBILGAILUAK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

4 DENETARIK

6 HARREMANAK

8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en doan

Astekarian: Saldu/erosi, errentan eman/hartu, 8€ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75

Posta elektronikoa: iragarki@guaixe.eus

LANA | NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZAK

Arruazuko ostatuan zerbitzari euskaldun bat behar da. Larunbat eta igandetarako. Tel 650 153 240.

Arbizuko kanpin-ean bi sorosle behar dira uztaila eta abuzturako. Tel 848 470 922 edo info@campingarbi-zu.com

Dorrauko elkartearen garbitasuna egiteko pertsona bat behar da. Tel 608 52 07 69

Administraria behar da Irurtzungo tailer batendako. Zonaldeko pertsona behar dugu. Arratsadez lan egiteko. Curriculum bidali camionrecambios@gmail.com

Arbizuko Karrika tabernan zerbitzari euskaldun bat behar da asteburutan lan egiteko. Tel 948 462 137

Zerbitzaria behar da Altsasuko Dantzaleku tabernan udan lanean aritzeko. Deitu 667 35 35 03ra

Urdiango igerilekuan soroslea behar da. Lan horietan aritzeko sorosle titulua, D.E.S.A. ziurtagiria behar da. Interesatuak maiatzak 25a baino lehen, aitziberelkartea@gmail.com-era bidali CV.

HIGIEZINAK

ETXEBIZITZAK

EROSI

Etxea edo borda birgaitzeko eta lur-sailarekin erosi nahi dut. Tel 652 06 40 43.

LOKALA

ERRENTAN EMAN

Lizarragako elkarteak. Elkarteak alokatzen da San Adrian jaietan (ekainaren 17tik 19ra). Enkantea ekainaren 4an eguerdiko 12:00etan izango da. Gutxienez 600 €.

Urdiango igerilekuak hartzeko interesatu guztiak, ekainak leian, ostegunean, arratsaldeko 20:30ean Aitziber elkartearen aurkeztu beharko dira. Talde bakoitzak bere ideia programa entregatu eta aurkeztu beharko du. Interesatuak gurekin kontaktuan jartzeko aitziberelkartea@gmail.com-en bidez. Junta.

IKASTAROAK

Excel. Altsasun, dohain. 20 ordu. Lehenetsuna langileek izanen dute. Maiatzaren 22tik 31ra, 17:00-19:30. Izen-ematea www.tiss.es edo 948 23 53 99.

CC. Digitala eta sare sozialak.

Altsasun, dohain. 20 ordu. Lehenetsuna langileek izanen dute. Ekainaren 1etik 8ra, 16:30-20:00. Izen-ematea

www.tiss.es edo 948 23 53 99.

OHARRAK

Olatzagutiko irakurle taldea. Amity Gaige-ren Las buenas intenciones liburua hizketatzeko elkartuko da garagarriaren 9an, 21:00etan, Olatzagutiko liburutegian.

Odol-emaileak. Altsasu: maiatzaren 19an 9:30-13:00. Lakuntza: ekainaren Sean, 17:00-20:30

Urdiango Gure Esku Dago.

Maiatzaren 20an bere eguna ospatuko du eta herri bazkaria antolatuta dago. Gure Esku Dagok antolatutako bazkaria joan nahi dutenek Kaluxa edo Mareo tabernetan eskuratu ditzakete txartelak.

Bakaikuko Gure Esku Dago. Argazki erakusketan prestatzen ari da. Giza kate-tik Bakaikuko herri galdeketera bitartean egindakoen argazkirik dutenek bakaikuko@gureeskudago.eus-e postara edo 634 451 040 telefonora bidaltzeko eskatu du.

Literatura irteera. Garagarriaren 4an, igandean, Zugarramurdira joateko txangoa eta bazkaria antolatuko du Arkatz liburudenda. Ibon Martin idazlearekin batera El último akelarre liburuko parajak ezagutzeko aukera izanen da. Altsasuko liburu-dendan eman behar da izena. 30 €.

Etxarri Aranazko irakurle taldea.

Garagarriaren 8an, ostegunean,

19:00etan, Etxarri Aranazko liburutegian elkartuko da Miren Gorrotxategiren 33 ezkil liburuz hizketatzeko.

Otaiko ermitaren alde. Eraikina konpontzeko diru bilketa egiten ari dira. Ekarpinak parrokian edo herriko banku eta kutxetan zabalduzako kontuetan sartu daitezke.

Enplegarritasuna hobetzeko biterkaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresari Elkarteak langabeei eta lan bila dabilzanezako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 € edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela

3MBk kontu korrantea zabaldu du Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpinak 3008 0093 66 2460985811.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza, euskonews@euskonews.com, 943 32 22 94

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

GoiEner Iruñean. Landare utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazketan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpinak egitera...

Euskaldun bat euro bat. Nafarroako erresumakoa izan zen Baigorriko Etxaizia gaztelua euskaldunentzat erreskuratu nahi da. Nafartarren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa www.euskaldunbateurobat.com

Helduen Nafarroako Euskal kantu Jaialdia. Udazkenean izanen da. Izena eman nahi duenak nafarroakoeskalkantu@gmail.com edo amadominguez@tafallaikaastola.org e-postara diatzi dezake, helduen jaialdirako dela adieraziz.

OPATUTAKOAK

GALDUTAKOAK

Argazki kamara digital txiki bat

Arbizuko Izar Ondo jatetxearen inguruan galdu nuen maiatzaren 7an. Zorro grisa du. Deitu 687 447 915 telefonora.

Altsasuko Udaltzaingoko Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diruzorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurrrekoak: 42. Euritakoak eta mikilak: 19. Belatitakoak, kateak, eskumuturrrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitazio bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

HERIOTZAK

• **Remedios Elorz Bakaikoa,** maiatzaren 11n Etxarri Aranatzan.
• **Maria Zabala Igoa,** maiatzaren 12an Altsasun.
• **Maria Otaegi San Roman,** maiatzaren 12an Altsasun

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

Pilota

XXV. Irurtzungo Pilota Txapelketa: final laurdenen atarian

Gaur, ostiralean ligaxkako azken partida jokatu da eta asteazkenean eta ostegunean, final laurdenak

Afizionatuen mailako Irurtzungo Txapelketa azken txanpara iristen ari da. Txapelketa apirilaren hasieran abiatu zen eta garagarriaren 10ean, Irurtzungo Trinitate festetan despiditu da. Puntako pilotari afizionatuak lehiatzen ari dira, 8 bikote promesen mailan eta 28 bikote senior mailan.

Gaur, ostiralean, ligaxkako azken partida jokatu da Irurtzungen eta asteazkenean eta ostegunean, aldiz, final laurdenen txanda izango da.

Irurtzungo Txapelketa. Asteako partidak

Gaur, ostiralean, 20:00etan, Irurtzungen, ligaxkako azken partida:

Lansalot-Mina / Otxandorena-Landiribar
Armendariz-Arratibel / Adonis-Aranguren

Asteazkenean, 19:15ean, Irurtzungen. Final laurdenak:

Olazabal-Eulate / Urbieta-Mariezcurrera
Santxo-Bergera / Zubizarreta-Garmendia

Ostegunean, 19:15ean, Irurtzungen. Final laurdenak:

Ojuel-Altuna / ostiraleko bigarren partidako irabazleak
Ongay-Azanza / ostiraleko lehen partidako irabazleak



Olaztin, San Migel Txapelketa

Olaztin San Migel elkarteak antolatutako XLVI. San Migel Txapelketa aurreko asteburuan hasi zen. Asteburuan 2. Jardunaldia egongo da jokoan.

XLVI. San Migel Pilota Txapelketa

Ostiralean, 20:30ean:

3. maila: Grados-Markinez / Julen-Aitor

2. maila: Aiestaran-Tuero / Elortza-Alfredo

1. maila: Urteaga-Huarte / Senar-Alustiza

Larunbatean, 17:00etan:

3. maila: Imanol-Mikel / Mazkian-Castellanos

2. maila: Mendoza anaiak / Loban-Arbizu

1. maila: Lopez de Zubiria-Garzia / Ioseba-Unai

Pilota

Joanes Bakaikoa, txapelaren bila

Etxarriarrak bihar, larunbatean, jokatu du Buruz Buruko promozio finala 17:30ean Labriten, Arteaga II.aren kontra (ETB1)

20 urteko Joanes Bakaikoa pilotariak ilbeltzaren 14an debutatu zuen Asegarcerekin, Promozio Binakako Txapelketan, Ladis Galarzarekin bikotea osatuta. Txapelketan behetik gora egin zuen bikoak. Ondoren, promozio Buruz Buruko iritsi zen eta hor beste maila bat gora egin du Bakaikoa. Finalerako sailkatuta, Julen Martija, Urretabizkaia II.a eta Gorka bidean utzi eta gero.

Bihar, Labriten jokatu den finalean (17:30ean, ETB1) etxarriarrak Axier Arteaga izango du aurkari. Apustuak Arteagaren alde aterako dira, baina etxarriarrak ez dizkio gauzak erraz jarriko eta final oso estua aurreikusten da.

Bakaikoa: "oso ilusionatuta nago"



Materiala aukeratzen zuen lehen aldia izan da hau, eta kosta egin zitzaion pilotak aukeratzeari. "Espero nuen diferentzia gehiago egongo zela piloten artean, baina oso antzekoak ziren, pilota exigenteak, pisu nahikorekin. Nik nahiago ditut arinxeagoak, baina arazorik gabe" aipatu zuen. Buruz buru, asko defenditu behar dela eta aukera dagoenean tantoa bukatu behar duela argi du etxarriarrak. "Nire lana ahalik eta hobekien egiten saiatuko naiz, eta irabazten badut, hobe. Lasaia naiz, normalean ez naiz urduri jartzen. Ea finalean ere hala den. Niretzat sari handia da finalera iristea eta oso ilusionatuta nago. Partidaz partida joaten naiz, partida bakoitza ahalik eta hobekien prestatuz eta finala ere horrela prestatu dut. Disfrutatzen saiatuko naiz. Sakea oso garrantzitsua da eta partidaren barna zentratua egotea, ezinbestekoa. Ezin da inoiz partidatik atera. Guztion ametsa da txapela ekartzea. Bera aterako da faborito eta ni nirean zentratuko naiz, saiatuko naiz nire maila ematen eta ahalik eta hobekien aritzen" nabarmendu zuen Bakaikoa. Ea txapela Etxarriara ekartzen duen.



Elkarpelota: hiru txapelak sakandar

Labrit pilotalekuan II. Elkarpelota Torneo finalak jokatu ziren. Hiru txapelak iritsi dira Sakanara: Lasok, Ganboak eta Goikoetxeak lortutakoak.

II. Elkarpelota Txapelketa, sakandarrak

Aurrebenjaminak: Mikel Laso (Irurtzun) 16 / A. Antimasberes (Lagunak) 10

Kadeteak: Borja Ganboa (Oberena) 18 / Javier Cuairán (Oberena) 10

Jubenilak: Urtzi Nazabal (Arbizu) 10 / Andoni Goikoetxea (Arbizu) 22

Seniorrak: Alberto Ongay (Irurtzun) 13 / Iosu Irurita (Oberena) 22



Txirrindularitza

XXX. Emakumeen Bira, Sakanan

Bihar, 14:00etan, Etxarri Aranatz - Aralarko San Migel santutegia etapa (58 km) jokatu da. Sakanako emakume txirrindulariek moztuko dute etapa hasierako zinta

Asteazkenean hasi zen XXX. Emakumeen Bira-Laboral Kutxa Sari Nagusia. Guztira 17 emakumezkoen talde dira lehiatzen daudenak, horietatik sei World Tour mailakoak. Puntako txirrindulariak.

Gaurko etapa Antzuolan jokatu da (77,6 km). Bihar, larunbatean, Sakanara helduko da Emakumeen Bira. Etxarri Aranatzetik abiatuko dira txirrindulariak, 14:00etan, Aralarko San Migel santutegiraino iristeko (58 km). Etapa menditsu eta ikusgarria prestatu dute antolatzaileek, sailkapen orokorrean eragina izango duena.

Goizetik egongo da mugimendua Etxarri. 13:00etan, txirrindulariek kontrol firma pasatu behar dute, plazan. Etxarri Aranatzko udaletxe paretik hasiko da lasterketa, 14:00ak puntuan.

Ibilbidea

Etxarritik aterako dira, Irurtzun bidean. Irañetan bonifikatutako sprinta izanen dute, 14:27ean. Irurtzunera sartuko dira, han buelta hartuko dute, eta Egiarretako bidegurutzean sartuta (14:43ean), Zuarrrateko igoerari ekingo diote

Sakandarrek moztuko dute zinta



Sakanako txirrindulari emakumezkoak izango dira etapa hasierako zinta moztuko dutenak. Izan ere, Etxarriko Udalak berdintasuna sustatzen jarraitzen du. "Berdintasunaren bidea erakitzen jarraitzen dugu, kirolean eta txirrindularitzan berdintasuna aldarrikatzeko eta emakume hauen indarrak eta ausardiaz gozatzeko. Horrelako ekitaldiek aukera paregabea ematen digute emakumeen borroka plazaratzeko eta agerian uzteko kirola kirola dela, eta sexuak ez daukala zerikusirik. Agian hemendik urte batzuetara Joana ala Leire etxarriarrak Emakumeen Biran ikusiko ditugu, baina argi daukagu, guretzat beti txapelak izango direla, eta gure eskutan dagoen guztia egingo dugula beraien bidea errazteko" nabarmendu du Udalak.

(mendiko saria, 2. maila). Ondoren, Larraungo zenbait herritatik pasa eta gero -Oderitz, Astitz eta Alli- Lekunberrira iritsiko dira txirrindulariak (15:08ean), eta Baraibartik barna Aralarko San Migel santutegiko igoera gogorari ekingo diote (mendiko saria, 1. maila, 1.222m., 15:57ak inguruan).

Emakumeen Birako azken etapa igandean jokatu da, Errenterian (95,2km), Jaizkibel portu arteko. Zalantzarik gabe, biharko San Migeleko etapak eta Errenteriko akerabakiko dute Bira. Annemiek van Vleuten (Orica), Ashleigh Moolman-Pasio (Cervelo) eta Shara Gillow (FDJ) dira faboritoak.



Nafarroako Herrien Arteko Txapelketa: Arbizu, lehian

Martxan dago Nafarroako Herrien Arteko Txapelketa. Arbizu B multzoan dago eta 2 jardunaldi jokatu ditu. Bata galdu eta bestea irabazi ditu.

1. jardunaldiko emaitzak: Iruñea 4 / Arbizu 0

Kimuak: Sarasibar-Sanchez 18 - Lakuntza-Imaz 16

Haurrak: Berrio-Otondo 18 - Erdozia-Gorrotxategi 11

Jubenilak: Mata-Cordon 22 - Olaetxea-Lazkoz 13

Seniorrak: Garcia-Etchegoien 22 - Nazabal-Goikoetxea 6

2. jardunaldiko emaitzak: Arbizu 3 / Larraun 1

Kimuak: Lakuntza-Imaz 18 / Goldarazena-Garaño 2

Haurrak: Estanga-Gorrotxategi 8 / Berekoetxea-Saralegi 18

Jubenilak: Lima-Petriati 22 / Galartza-Domeño 1

Seniorrak: Olaetxea-Lazkoz 22 - Gurrea-Mitxio 6



Espainiako Kopa Rural Kutxarendako

Asteburu bikaina izan da hau Rural Kutxa-Seguros RGA talde sakandarrarendako. Batetik, Iker Azkaratek Berriatuako lasterketa irabazi zuen eta Euskaldun Torneo lider berria da. Eta, bestalde, Espainiako Kopa irabazi du Rural Kutxako Gonzalo Serrano madrildarrak, igandean jokatuako Macario Sari Nagusian lan bikaina egin eta helmugan, esprint estuan, bigarrena izan eta gero.



Gorka Izagirrek Giroko trofeo bat ekarriko du Ziordira

Giroko 8. etapa irabazi zuen

Ziordian bizi den Movistar Team taldeko Gorka Izagirre ormaiztegiarrak irabazi zuen larunbateko Italiako Giroko etapa lehiatua. Eraso bikaina jo eta gero, helmugara bakarrik iritsi zen eta garaipen garrantzitsua lortu zuen, "orain arte lortutako garaipenik onena.



Kirolegia



Mank-en bizikleta festa aurten Etxarri Aranatz

Maiatzaren 28an izanen da baina izena ematea maiatzaren 23a baino lehen egin behar da

Aurten Etxarri Aranatzek hartuko du Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuak eta Euskara Zerbitzuak antolatutako bizikleta festa. Adin guztietarako antolatu dute bizikleta festa, baina 10 urtetik beherakoek nagusiek lagunduta parte hartu beharko dute. Besteak beste, maiatzaren 28rako 9:30ean 20rduko bizikleta ibilaldia, 11:30ean auzatea eta kirol materialaren trukea eta 12:00etan herri jolasak eta bizikleta konpontzeko tailerra antolatu dira. Trukerako materiala ikastetxeetara eraman beharko da maiatzaren 23a baino lehen, eta tiketak jasoko dute egunean trukatzeko.

Izena emateko

Dohainik da, baina maiatzaren 23a baino lehen eman behar da izena Andra Mari ikastolan eta San Donato, Luis Fuentes, Arbizu eta Arrano Beltza ikastetxeetan. Bestela, 948 464 866 telefonoan (Mank kirol zerbitzua, kirolak@sakana-mank.eus)

Mendi lasterketak

Beraza bosgarrena Irati Trailean

Uharte Arakilgoa lehen beteranoa izan zen. Aritz Munarriz zazpigarrena sailkatu zen eta Joxeja Maiza zortzigarrena

Sakandarrik Irati Trail 23 km Inter Irabian

1.	Ion Sola	2:02:19
5.	Jose Luis Beraza (Uhar)	2:11:47
7.	Aritz Munarriz (Etx)	2:14:54
8.	Joxeja Maiza (Etx)	2:15:48
32.	Iñigo Etxarte (Irur)	2:33:17
34.	Iñigo Rekalde (Irur)	2:36:18
66.	Iñaki Morillas (Irur)	2:47:49
120.	Amaia Razkin (Uhar)	3:10:40

Igandean jokatu zen Irati Trail 23 Km Inter Irabilia lasterketa, aldi berean Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketa zena. 177 korrikalarik osatu zuten proba eta Ion Sola (2:02:19) eta Laura Sola (2:23:18) gailendu ziren. Sakandarren artean Jose Luis Beraza izan zen azkarrena, helmugan bosgarrena sartu eta gero (2:11:47). Uharte Arakilgoa probako lehen beteranoa izan zen eta Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketa lehen beteranoaren saria jaso zuen ere. Bestalde, igandean Zumarraga-Urretxun jokatutako III. Uz Trail mendi lasterketako 11 km-ko proban. Ainhoa Markinez olaztiarra 67.a sailkatu zen (1:26:19).

Irristaketa

Espainiako Txapelketak: hiru domina ekarri ditu Villalobosek

Lapuente, Villalobos, Dacosta eta Chamorro asteburuan lehiatu ziren Bartzelonan

Asteburuan Llica d-Amunten (Bartzelona) Espainiako pista eta abiadura txapelketak jokatu dira, haurren eta gazteen mailan. Haurren mailan Jose Diego Dacosta eta Ane Lapuente sakandarrak lehiatu ziren, eta gazteen mailan Ander Chamorro eta Unai Villalobos.

Lan bikaina egin zuten lau sakandarrek. Tartean, Anne Lapuente laugarrena sailkatu zen 500 m sprintean eta bosgarrena 300 m erlojupekoan. Eta Unai Villalobosek brontzezko hiru domina lortu zituen 300 m erlojupekoan, 5.000 puntuazioan eta 10.000 kanporaketan.



Asteburuan Lagunak-en

Asteburu honetan Barañaingo Lagunak klubeko instalazioetan Espainiako Pista Irristaketa Txapelketak jokatu dira, junior eta senior mailan. Bertan irristalari sakandarrak ere arituko dira.

Areto futbola

Xotaren eta Osasunaren arteko akordioa, istear

Hurrengo asteetan ezagutuko dira proiektuaren xehetasun guztiak

Magna Gurpea Xotak eta Osasuna klubak akordioa iritsi dira, "elkarrekin bidea egiteko". Bientitateek anbizio handiko proiektua konpartitu nahi dute, Nafarroako kirola sustatu nahi duena. Hurrengo asteetan ezagutuko dira proiektuaren xehetasun guztiak, baina aurreratu daitekeena da Xotak kolore berdea albo batera utzi eta Osasunako kamiseta gorria jantziko duela, Adidas etxekoa, Osasunako armarraria duena.

Aurrerago jakingo dira zein izenarekin lehiatuko den, publizitate akordioaren politika zein izango den, partidak non jokatu diren eta akordioaren beste xehetasun guztiak. Xotako presidente Tatono Arregik azaldu duenez, "Osasunarengatik oso ongi tratatuak sentitzen dira, maitasun guztiarekin".

Txirrindularitza

VII. Sakana-Burunda 2017 martxarako izena ematea zabalik

Ekainaren 3an izango da. Ekainaren 1a baino lehen eman behar da izena

Barranka Txirrindulari Taldeak hainbat entitatekin laguntzarekin antolatuta, ekainaren 3an jokatuko da VII. Sakana-Burunda 2017-Gran Fondo Navarra bizikleta martxa, Altsasun. Antolakuntzak bi ibilbide antolatu ditu, luzea (160 km) eta ibilbide laburra (118 km).

Aurtengo ibilbidean aldaketa nabarmenak egin dituzte. Ez dira Urbasatik pasako. Ibilbide luzean, Uhartetik San Migel igo ondoren, Lekunberrietik Irurtzuna joko dute eta handik Aizpunera, Ariza-

letara eta Lezauñera, Lizarragako portua jaitsi eta Altsasuko bidea hartzeko. Ibilbide motzean, aldiz, Uhartetik Arakiletik zuzenean Irurtzuna joko dute, Aralar santutegira igo gabe, eta ondoren, luze ibilbide berbera egingo dute.

Izena emateko

Ekainaren 1era arte www.barrankatt.com weborrian. Federatuek 25 euro eta federatu gabekoek 30 euro.

Futbola

Despeditu da liga: Lagun Artea laugarrena eta Etxarri Aranatz bederatzigarrena

Preferente maila. 30. jardunaldia: Lagun Artea 3 - Berriozar 1 / Etxarri Aranatz 3 - Arrotxapea 2

Lagun Arteak eta Etxarri Aranatzek despeditu dute 2016/2017 denboraldia. Asteburuan 30. jardunaldia jokatu zen, azkena.

Lagun Arteak 3 eta 1 irabaziz Berriozarri Lakuntzako Zelai Berrin jokatutako lehian. Berriozar aurreratu zen markagailuan, baina beranduago Berriozarkoek ate propioan sartutako gol bati esker berdintzea lortu zuen Lagun Arteak. Bigarren zatian Enekok, txilenaz, txurien bigarrena sartu zuen eta Danielek, Lagunen hirugarrena.

Bestalde, San Donaton jokatutako partidaren jokoan zeuden 3 puntuak Etxarri Aranatzek geratu ziren. Lehen zatian Etxarri izanzen nagusi eta gol aukera ugari sortu zituen. Unai eta Urkiak bi gol sartu zituzten. Bigarren zatian Arrotxapeakoak hobeto aritu ziren eta

gol bat sartu zuten. Handik gutxira, Unai Etxarriren hirugarrena sartu zuen baina Arrotxapeakoek, penaltiz, bigarrena sartzea lortu zuten. 3 eta 2 irabazita despeditu zuen liga Etxarrik.

Lagun Artea, igoera fasera sailkatzeak

Sailkapenean Bidezarrak irabazi du Preferente mailako lehen multzoko liga (68 puntu). Maila autonomikoara igo da. Beti Casadano bigarrena izan da (59 puntu) eta Doneztebe hirugarrena (47 puntu). Bi talde hauek igoera fasea jokatuko dute. Igoera fasera sailkatzeak geratu dira lakuntzarrak, laugarrena sailkatu baita Lagun Arteak (44 puntu), igoera fasera 3 puntu eskasera. Pena alde horren gutxiagatik sailkatzea lortu ez izana. Eta Etxarri Aranatz 9.a sailkatu da (39 puntu). Hurrengo denboraldian Lagun Arteak eta Etxarri Aranatzek preferente mailan jarraituko dute.

Erregionaleko kopa: Altsasu finalerditan



Erregional mailako kopan garaipenak garaipenen atzetik pilatzen ari da Altsasu. Final zortzirenetako itzulerako partida jokatu zuen Altsasuk larunbatean Dantzalekun, Fiteroko Calatravaren kontra. Joanekoan 1 eta 2 irabazi zuen Altsasuk, eta kanporaketa alde zuten gorritxoek. Altsasu hasi zen dominatzen, baina Calatravaren atea zulatzea kostatu egin zitzaion Joseba Bakikoaren mutilei. Ongi defendatu zuten altsasuarrek eta Calatravakoek eusten bikain jakin izan zuten. Bigarren zatian iritsi zen euren aukera eta Gorkak eta Javik sartutako golei esker, 2 eta 0 irabazi eta Erregionaleko kopako finalerdietara sailkatzea lortu zuten. Finalerdietan Los Arcosek Urantzia taldea izango dute aurkari altsasuarrek. Joaneko partida igandean jokatuko da, Dantzalekun, 17:30ean. Ea orain arteko garaipenaren biderari eusten dioten.

Futbola

I. Ziordiko Futbol Txapelketa

Asteburuan I. Ziordiko Futbol Txapelketako 1. jardunaldiko atzeratutako partidak jokatu dira Ziordiko Txipudiko futbol zelaian. 3. jardunaldia maiatzaren 26tik 28ra jokatuko da.

2. jardunaldiko emaitzak

Dia Ibaia 5 - Ingenierias Iradi 8
Los Suaves 9 - Auzomotojorik 9
Ziordia 4 - Leones del Atlas 4
Futsal Sakana 9 - Aralar Mendi 6

1. jardunaldia: atzeratutako partidak

Aralar Mendi - Dia Ibaia
Ingenierias Iradi - Auzomotojorik

Sakanako Futbol Topaketak: kimuen azken jardunaldia

Igandean Etxarri, Altsasun eta Urdiainen

Mank-ek futbol taldeekin elkarlanean antolatutako Sakanako Futbol Topaketen kimuen mailako 15. jardunaldia, azkena, etzi jokatuko da.

Sakanako Futbol Topaketak: kimuen 15. jardunaldia, etzi

10:00etan: Kaixo - Lagun Artea (Dantzalekun)
12:00etan: Urdiain - Sutegi (Urdiain)
12:30ean: Etxarri Aranatz - Tipi Tapa (Etxarri)

Atletismoa



Dena prest IV. Ziordiko herri kroserako

Larunbatean jokatu da, 17:00etan haurrak eta 18:00etan helduak

Ziordiko Running taldeak maki bat babeslerekin antolatuta, bihar, larunbatean, IV. Ziordiko herri krosa jokatu da. 17:00etatik aurrera, haurren lasterketak jokatu dira, kategoria ezberdinetan banatuta. Helduen proba, aldiz, 18:00etan hasiko da. Prestatutako zirkuituari 3 buelta eman beharko dizkiote helduek 6,8 km osatzeko. Bukatzerakoan sari ematea eta auzatea izango da, Ziordiko elkartearen. Korrikalarien artean ere hamaika sari zozketatu dira.

Elikagaiak, inskripzioen truke Ziordiko herri krosa proba solidarioa da. Izena ematearen truke elikagaiak eman beharko dituzte korrikalariak, haurrek 2 kilo eta helduek, aldiz, 3 kilo. Jasotako guztia Iruñeko Paris 365 jantoki sozialera bideratuko da. Bereziki kontserbak, olio eta gosaritako elikagaiak –mermeladak, zerealak, galletak, Cola Cao...– dira behar dituztenak.

Bestalde, Ziordiko herri kroserako

an erabilitako boligrafoak eta errotulagailuak jasoko dira, Dravet fundazioaren alde.

Izena emateko

Aurretik, gaur, ostiral arratsaldean arte, Dantzaleku Sakana Klubeko web orrian, (www.dantzalekusakana.com) eta egunean bertan, Ziordiko elkartearen, 16:00etatik aurrera.

Sakanako XIV. Atletismo Kopa-Lasa Kiroiak Saria abian

Ziordiko IV. Herri Krosak Sakanako XIV. Atletismo Kopa-Lasa Kiroiak Saria zabalduko du, Mank-ek Dantzaleku Sakana klubarekin antolatutako Kopa. Aurten 5 lasterketak puntuatuko dute: Ziordikoak, Bakaiku-Iturmendiko XIV. Aitzkozar Herri Krosak (ekainak 10), Ergoienako XIV. Birak (irailak 23), Sakanako XVII. Herri Lasterketak (urriak 21) eta Barrikarteren XXXVII. Oroimenezko Oinezko Lasterketak (abenduak 8, Altsasu). Sakanako 10 korrikalari hoberenek puntuatuko dute, emakumezkoek eta gizonezkoek.

Duatloia

Half triatloia: Felix Benjumea bederatzigarrena Oropesan eta sakandarrak txukun Iruñean

Benjumea lehen beteteranoa izan zen Oropesa del Marreko Half Triatloian eta Sergio Garcia de Eulate Iruñeko Half Triathlon Erronkan 19.a sailkatu zen 35-39 mailan

Asteburu honetan Half Triatloikategoriako bi proba gogorretan aritu dira triatleta sakandarrak. Batetik, Oropesa del Marreko Half Triatloia No Drafting proban (1,9 km igerian, 90 km bizikletan eta 21 km korrikari) aritu zen Felix Benjumea (Saltoki Trikideak). Altsasuarren proba bikaina egin zuen eta helmugan bederatzigarrena iritsi zen (4:22:25), Fernando Santander irabazletik (4:04:45) 17:40ra. Beteteranoen mailan lehena izan zen Benjumea.

Garcia de Eulate, Espainiako Kopako lider

Iruñeak Pamplona-Iruñea Half Triathlon Erronka hartu zuen

Sakandarrak Oropesa del Marreko Half Triatloian (1,9 km-90 km-21 km)

9.Felix Benjumea: 4:22:25 (lehen beteteranoa)

Sakandarrak Pamplona-Iruñea Half Triathlon Erronkan (1,9 km-85 km-21 km)

-Adin taldekako multzoen sailkapena:
92.Sergio Garcia de Eulate: 4:28:24 (35-39 mailan 19.a)
202.Mikel Lakuntza: 4:41:25 (45-49 mailan 19.a)
214.Iñaki Alvaro: 4:42:40 (30-34 mailan 56.a)
260.Isidro Asurabarrena: 4:47:20 (40-44 mailan 62.a)
*Javier Borrega: 4:42:23

larunbatean. Alkozeko urtean 1,9 km igerian egin ondoren, bizikleta hartu eta 85 km-ko buelta egin behar izan zuten triatletek, bizikleta utzi eta Iruñean 21 km-ko distantzia korrikari osatzeko. Sergio Garcia de Eulatek ez zuen aurreikusitako maila eman, muskulu-arazoak izan baitzituen, baina hala ere 92.a sailkatu zen, 35-39 urte arteko multzoan 19.a (4:28:24). Horrela, Espainiako Kopan bere adin tarterko multzoko liderra da altsasuarra.



Fermin Azkargortaren bi dominak

Nafarroako Kirol Jolasetako Atletismoko lehen finalerako erreleboetako txapelketa izan zen Pamplona Atlético taldearekin eta 400 m hesietan bigarrena sailkatu zen iturmendierra

Larunbatean Nafarroako Kirol Jokoetako Nafarroako Atletismoko lehen finalak jokatu ziren Iruñeko Larrabideko atletismo pistan. Fermin Azkargorta korrikalari iturmendiarrak junior mailako bi probatan parte hartu zuen, 400 m hesietan eta 4x400 metroan, erreleboetan, Pamplona Atlético bere taldeko kideekin.

Goizean, 400 m hesietan lasterketa bikaina egin zuen Azkargorta eta bigarrena iritsi zen helmugara (57.63). Denbora horrekin Espainiako Txapelketetara joateko txartela lortu zuen Azkargorta, bertan parte hartzeko 58.10-eko denboratik behera egin behar baita.

Arratsaldean izan zen erreleboetan txanda, 4x400 metroan. Iturmendiarrak eta bere taldekideekin bikaina egin zuten. Hirugarren aldaketan hartu zuen lekukoa



Azkargortak eta taldeko azkarrena izan zen. Pamplona Atlético txapelketa izan zen (3:37). Bi dominajantzita, bere ibilbidean pausuak ematen jarraitzen du.

Andra Mari IV. Binakako Lasterketa

Izena ematea zabalik: Maiatzaren 27an jokatu da Andra Mari ikastolako IV. Binakako Naparpet Saria, eta aurretik izena eman daiteke ikastolan.

Saskibaloia

CBASK: 6 tantorengatik... liga titulurik gabe

CBASKek Final Fourreko finala galdutako, 51 eta 57. Megacalzado Ardoien kontra

Asteburuan gizonezkoen senior mailako 1. maila autonomikoan liga titulua erabakitzeke Final Fourra jokatu zen. Final Fourrera iritsi ziren lau taldeak CBASK Altsasu, Megacalzado Ardoi, Escaleras Aguerri eta Oberena izan ziren.

Larunbatean Oberenaren kontra lehiatu zen CBASK Altsasu. Partida oso konplikatu aurreikusten zen, Oberena maila horretako talde onenetakoa baita. CBASKek sorpresa eman zuen eta final handirako sailkatu zen, partida zirraragarrian 2 tanto eskasekin

Oberenari 67 eta 69 irabazi eta gero.

Finalean Escaleras Aguerri 57 eta 67 irabaztekin zeterren Megacalzado Ardoi izan zuen aurkari CBASKek. "Oso partida borrokatu izan zen. Hasieran CBASK okerago hasi zen, 14-15 tantoko aldea ateratzen Ardoien. Baina buelta eman zioten partidari eta berdintzea eta lauzpabost tantoko aldea izatera lortu zuen CBASK-ek. Partida bukaera ikusgarria izan zen, bi taldeek irabazi ahal zezaketelako, aldea txikia baitzen. Baina Ardoien partida bere aldera jartzen jakin zuen eta, azkenean, 51 eta 57 irabazi zion CBASK-i" adierazi digute Altsasuko klubetik.

Zaleei eskerrak



CBASK-ek Final Fourrera taldea animatzera gerturatutako altsasuarren animoak eskertu nahi ditu. "Jende asko etorri da gu animatzera eta oso giro ederra sortu zuten kanpian. Espero baino basket zale altsasuar gehiago gerturatu ziren, eta izugarri animatu zuten taldea. CBASK klubeko gainontzeko taldeko neska-mutilak ere finalera gerturatu ziren. Jokalariak asko eskertu zuten zaleek sortutako giro bikaina eta emandako animoak" diote CBASK-en. Bigarren urtean finalera sailkatu da CBASK, baina, gutxigatik, finala galdutako du. Ea hirugarrenean iristen den txapelketa izateko aukera!

Non erabili

JALDASORO HARATEGIA

ALTSASU

30€ko erosketa batengatik etxeko produktua opari.

ALFA INMOBILIARIA

ALTSASU

Etxe edo pisu baten erosketagatik 100 €ko txeketa opari.

KIXKUR ESTETIKA ZENTROA

ZIORDI

Edozein produktu erostean, bigarrenean %20eko deskontua.

IORTIA HORTZ KLINIKA

ALTSASU

%10 aho garbiketetan eta hortz ateratzeetan. Azterketa doan.

JULENE KORTSETEGI ETA LENTZERIA

ALTSASU

%5eko deskontua 50 €tik gorako erosketetan.

JOSE ITURRALDE TAXIA IRURTZUN

%10eko deskontua.

JAVIER AIZPUN HARATEGIA

UHARTE ARAKIL

50 €ko erosketetan, etxeko produktua doan.

UHARTE GAZTA

UHARTE ARAKIL

40 €ko gastuarekin, etxeko produktua doan.

BERGARA CENTRO OPTICO

AGURAIN

Graduatutako eta eguzkitako betaurrekoetan %

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai



BAZKIDETZA 50€
948 564 275

Altsasuko festak iragartzeko kartel lehiaketa deitu du

Irailaren 13aren eta 17aren artean ospatuko dira Altsasuko festak. Haiek iragartzeko kartela aukeratzeko Altsasuko Udalak lehiaketa antolatu du. Bi maila izanen dira helduena eta haurrena. Batera eta bestera aurkeztutako kartelek honako leloa izan beharko dute: **Altsasuko festak 2017 Fiestas de Alsua 2017**. Lanek originalak izan behar dute.

Helduen mailara aurkeztu nahi dutenek gehienez bi lan aurkeztu ditzakete. Lanak DIN A3 edo 70 cm x 50 cm tamainan aurkeztu beharko dira, euskarri gogor baten gainean. Plika sistema erabiliz, lanak garilaren 14ko 14:00ak arte aurkeztu daitezke Iortia kultur gunean. Epaimahaiak hiru kartel finalista aukeratu koditu eta altsasuarren botoekin festetako kartel iragarlea aukeratu da. Herri bozketa garilaren 19tik 24ra egingen da. Kartel irabazlearen egileak 600 euro irabaziko ditu.

Haurren mailari dagokionez, herriko ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako eta DBHko 1. eta 2. mailako



lako ikasleek parte hartu dezakete. Lanak A3 tamainako paper bertikal batean aurkeztu beharko dituzte Iortia kultur gunean, garagarriaren 16ko 14:00ak baino lehen. Plika sistema erabili beharko da lanak aurkezteko. Kartel sarituaren egileak marrazketarako materiala eta 60 euro eskuratuko ditu. Lehen Hezkuntzako kartel onenarendako aipamen berezia izanen da.

Amateur antzerkiaren garaia Irurtzunen



Larunbatean, 20:00etan, Irurtzungo kultur etxean

Irurtzungo Kultur Kontseiluak antzerki amateurreko bi lan programatu ditu hurrengo bi larunbatetarako. Zikloa Kukumix antzerki taldeak zabalduko du. Alfredo Sanzolen *Escenicas* antzezlarekin etorriko dira. El Bardo Escaldao taldearen gerizpean elkartutako zazpi antzezleek osatzen dute taldea. Haien zuzendaria Iratxe G. Uriz da.

I hizkiari azentu-marka jarri diote "izenburutik hasita bizitzaren egoeren hautsitako paradak kontatu nahi digutelako, dena umorezko ikuspuntu batetik nola

ez. Eszenaz osatutako obra ekarzen digute kasu honetan eta Nafarkeriaren ikuspuntu berezi horietatik kontatutakoa gainera". Sanzolek joan den mendeko 80ko hamarkadan kokatu du antzezlan. Hartan agertuko dira sanferminak, ipuineko antxumeak, torroak, amonak eta beste. Honako antzezleek jokatuko dute obra: Inma Montosa, Iñaki Zabala, Montxo Marcó, Paco García, Arantza Larunbe, Elena Rodríguez eta Beatriz Ripodas.

Irurtzungo amateur antzerki zikloa Txilindron antzerki taldearen *Mi mujer es el fontanero* obraekin osatuko da. Hilaren 27an jokatu da.

Teatreves ziklorik ez, baina amateur antzerkia bai

Maiatzak berarekin Teatreves antzerki amateur zikloa ekartzen zuen Altsasura. Aurtentzen zazpigarren edizioa antolatzen zuten Tarima Beltza taldea. "Bestelako arrazoiengatik eta Iortia kultur guneko programazioaren overbooking moduko batengatik, guk hala nahi gabe, zikloa ezin programatu gelditu gara". Tarima Beltzako kideek zikloa gozatzeko zuten barkamena eskatu diete.

Gaineratu dutenez, "Iortian kalitatezko antzerki amateur programatzeko ahaleginean ez dugu etsiko". Urtean zehar emaldiak antolatuko dituzte. Hala, gogorarazi dute garagarriaren 3an Iruñeko Zarrapastra taldeak *Urtsua*, *La leyenda de luz y niebla* antzezlana jokatu duela. Lizarrako Kilkarrak antzerki taldearen azken muntaia Altsasun ikusteko aukera izanen dela aurreratu dute. Beste erkidegoetako talderen baten bisita lotzen ari direla gaineratu dute.



948 461 734
Zumurdineta
Industrialdea 6
ETXARRI ARANATZ
948 500 392
Akaborro
Industrialdea 14
IRURTZUN







Dantza eta zinema, eskutik: **Kukai**

Dantza Garaikidearen Jaialdiak, DNA, bigarren edizioa du maiatzaren 20tik garagarriaren 3ra. Nafarroarako dantzaren eta arte garaikidearen arteko bat-egitea du helburu jaialdiak. Edizio honetan dibertsitatearen ardatzaren inguruan diseinatu da. Era horretan, dantza lengoia artistiko desberdinekin batuko da eta, esaterako, Altsasura zinemarekin batera iritsiko da Kukai Dantzaren *Oskara Plazara*.

Pablo Iraburu eta Iñaki Alforja nafarrek Kukai Dantzako dantzariekin metraje ertaineko film dokumental bat egin zuten: *Oskara*. Kukai Dantza taldeak Marcos Moreauren koreografia batean oinarriturik musturiko izen bereko ikuskizunean oinarritzen da dokumentala. Ikuskizunak muntai horren sortze prozesua jasozten du. Bertan parte hartzen dute Erramun Martikorena abeslariak eta euskal kulturako elementuek, esaterako: joaldunak, Lesakako ihauteriak, maskaradek eta abarrek.

Nemo kapitaina bisitatzera joaten den haurraren istorioa

Castillo Suarez azken lana, Nemo kapitainaren azken bidaiak, Altsasuko Basoko Marin aurkeztuko du gaur, 19:00etan

Erkuden Ruiz Barroso

Nafarroan laurogeita hamar bat hurrek bidaiatu behar dute haien gurasoren bat bisitatzeko. Castillo Suarezek haur horiei guztiei eskaini die *Nemo kapitainaren azken bidaiak* liburua. Protagonistak ere bidaiak egiten ditu haren aita bisitatzeko. Egoerari aurre egiteko istorio bat asmatzen du. Gaur aurkeztuko dute Basoko Mari dendan 19:00etan.

Nemo kapitainaren azken bidaiak liburua, izenburuak dioten bezala bidaiak batzuk kontatzen ditu. Baina ez nolana hiko bidaiak. Haur batek kartzelan dagoen aita bisitatzera joaten deneko bidaiak kontatzen ditu. Umea kontzientea da aita kartzelanda goela: "kartzelak hotzak eta zikinak direla dio eta ez zaio gustatzen arrazoi askorengatik". Gainera, kontzientea da gauza asko galtzen dituela. Hortaz, egoerari aurre egiteko Nemo

kapitaina ikustera doala irudikatzen du. "Nemo kapitaina urpekari batean zegoen, bakarrik, irakurtzen eta oso pertsona berezia zen. Bakardadean bizi zen eta, gainera, haurrari itsasoko gauzak izugarri gustatzen zaizkio". Egoerari aurre egiteko hartzen duen estrategia da: "berak irudi hori sortzen du mekanismo gisa hobeki bizi ahal izateko".

"Mutiko hau existitzen da". Castillo Suarez Jaunratseko ikastolara joan zen eta hurrekin hitz egiten zegoela, guztiek hasi ziren kontatzen haien aitaren ogibideaz. "Mutiko batek kontatzeko zeukan bere aita Valentzian bizi zela, eta nolabait parekatu nahi zuen besteekin". Berari eskainita dago liburua: "iruditzen zait zor bat neukala mutiko horrekin". Durangoko Azokan ere mutiko bat emakume batekin ikusten zuen, eta bazekien bere ama ez zela. Ama bisitan egoten zen eta, horregatik, izeba deitzen zuen emakume horrekin joaten zen. "Berari ere zor nion liburua".

Istoria haur baten ikuspuntu-



tik kontatuta dago, hortaz, egoera hori sufritzen duen haur baten buruan sartzeko hiru familien laguntza izan du Suarezek. "Ume batek eman zidan ideia, baina beraiendako oso bizitza esperientzia gogorra da eta batzuetan dira gauza horretaz hitz egitera". Aurkezpena mutiko horietako baten aita joan zen, "haurrak ezin zuelako, oso triste jartzen dela dio", eta liburuan agertzen den irudi batean bere burua ikusten zuela esan zion Suarez.

Suarezek baldintza bat jarritan argitaletxeari: ilustrazioak Aitziber Alonsok egitea. Bost eta bederatzirte tartean irakurtzeko gomendatuta dagoen arren, Suarezek uste du haurrak eta helduak elkarrekin irakurtzeko liburu bat dela. "Galdera asko sortuko dizkio umeari". Haurrendako literaturarekin beldur da ez ote diren liburuak helduendako egiten. "Irakurri duten helduek esan didate asko gustatu zaiela. Ea hurrek berdin esaten didate".

bazterretik

Mar Gonzalez Ruiz de Larramendi

Helmugak

Iruñetik Bartzelonarako bidean tren lasaia igarotzen dira arratsaldean zehar. Ez dirudi heltzeko premiarik dutenik, eta geltoki hutsetan gelditzen dira noizbehinka, zerbaiten esperoan bezala. Berriz abiatzen diren bakoitzean egunak argi pixka bat galdu duela ikus daiteke leihoz zikinetatik. Eta leihoz hauek, motelki, paisaia aldatzen doa, eta koloreak, eta zeru berdin desberdinen dentsitatea. Eguna galtzen den heinean ilunak trenaren iren tsiko duela dirudi, baina ustekabean argiak pizten dira.

Iruñetik Bartzelonarako bidean ahots kexatiak entzuten dira arratsaldean zehar. Heltzeko premia daukatela dirudi, eta marmarka adierazten dute geltoki hutsetan geldi-

tzen garen bakoitzean. Moteltasunak sumintzen ditu, eta denboragaltze astunak. Monitore txikian ikusi dezaketen pelikulak oso txarrak omen dira gainera, eta egunkariak azkarregi amaitzen zaizkie.

Emakumeak hiru egunkari eskatu omen ditu arratsaldean zehar, eta bi minututan irakurri dituzenez, jada ez dauka zer egiterik. Gainera, trenaren hotz biziarekin duela dio. Senarra ados dago eta orain okupazioaz mintzo da: "ez dirudi arazo hori inoiz konponduko denik, legislazio zorrotzagoa ezartzen ez badute behintzat". Oraindik ez dira trenaren triki-trakaz kexatu, paisaia begiratzearren leihorekin kontraipintzen ez direlako agian.

Nikez dakit Bartzelonara heldu nahi dudana, edo zuhaitz gehiago dituen beste leku batera. Nahiagonuke agian

beste nonbait azaltzea, nonbait bakartiago, ilunago. Gainera, ez daukat presarik. Hemen tartean luze geratzen bagara, geragaitzen. Ibilbidea atsegina da, eta helmugarik gabe abiatzearen sentimen eroso gordetzen du oraindik.

Hirian ez daukat labaintze leun hau hobetuko duen ezer esperoan. Atzeratu gaitzek leihoretatik begira, ilunabarrak irensten gaituela. Helmugak paisaia ugari deuseztu ditu jada. Argia zeharo galdu denean, emakumeak leihotik so egin du, baina paisaia joanda dago, eta bere aurpegi aspertua aurkitu du soilik. Ilusiorik gabeko hazpegiak zailak dira begiratzen. Eta arrazoirik gabe, larri piztu zaio hirira heltzeko beharra. Eta ez daki zertarako, baina iritsi nahi du.

Bartzelonara ailegatzean etxera abiatuko dira senar-emazteak, eta etxeko pertsonak irekitzeko esfortzurik egin gabe oheratuko dira. Loegin baino lehen Bartzelona inbaditzen ari diren turistez hitz egingo dute:

"Tamalez egoera oso larria da, jasan ezina. Bai, eta hiria beroegi dago, horrela ezingo dugu lorik egin. Gainera leihok irekitzekotan, zarata. Hiri honetan ezin daiteke bizi. Hobeki egongo ginateke beste nonbait... Eta infernu honetarako bidean zeuden paisaia, gainera, helmugak kendu dizkigu".

Olmosen erakusketa Zizurren

Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Tamaina handiko egurrezko eskulturez bete du Jose Mari Olmos eskultore altsasuarrek Zizur Nagusiko kultur etxeko patioa. "Oso gutxi gaitatik sartu ziren piezak", aitortu digu. 2014ko azaroan Altsasun *Hiru keinu iraganari* erakusketan jarri zituen eskulturak daude, esaterako: koloretako margoak, txorroskiloa, konpasa, kutxa bat edo

Leonardo da Vincideren *Vitruvio-ko gizona*. Azken hori bukatu gabe dago, baina kultur etxeko ardura-dunen eskariz zirkulu barruan dagoen giza irudia erdi landua dago. Olmosen hirugarren erakusketa da Iruñerrikoa.

Ordutegia

Hilaren 28ra ikusgai: astegunetan 9:00etatik 21:00etara; larunbatean, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara eta igandeetan jai-egunetan 12:00etatik 14:00etara.

Etxarri Aranazko abesbatzaren kontzertua

Igandean, 19:00etan, Etxarri Aranazko elizan

Etxarri Aranazko abesbatzak Laredoko Musika Udaberri Fejinarren XII. edizioan parte hartu zuen. Emanaldi arrakastatsua eskaini

zuen. Gainera, Etxarri Aranazko abesbatzak Esteban Sanz Velez konposatzailearen *Bastantes tus ojos* pieza mustu zuen. Igandean etxean eskainiko duen *Manto de espuma* izenburuko kontzertuan ere Kantabriako kantu pare bat eskainiko ditu.

Egitaraua	Sortzailea
Obra	
Ave regina caelorum	Tomas Luis de Victoria
Ave Maria	Franz Biebl
Bogoroditse Dievo	Sergei Rachmaninov
Ave maris stella	Samuel Barber
Volar	Esteban Sanz Velez
Levantate morenita	Esteban Sanz Velez
Izar ederrak	Josu Elberdin
Kitolis	Luis Aranburu
Te llevare	Albert Alcaraz
De profundis	John August Pamintuan



G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
eguraldia							
euria: 15%	euria: 10%	euria: 10%	euria: 10%	euria: 5%	euria: 10%	euria: 10%	euria: 10%
Min: 12 Max: 23	Min: 12 Max: 24	Min: 12 Max: 20	Min: 12 Max: 24	Min: 13 Max: 23	Min: 14 Max: 24	Min: 14 Max: 20	

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	29	7.5	5.4
Etxarri A.	27.6	5.1	13
Altsasu	27	7.5	4.2
Aralar	20.7	4.5	11.9
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia >>

	ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
ilargiaren aldia				
25	1	9	17	

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide zozketa

MAIATZEKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri: 2 sarrera
Artazako Kanpina: %10eko deskontua
Lacturale: esneki lotea
Gaztezulo: 3 hilabetez doan
Magna Gurpea: 2 sarrera
Aquarium: sarrera bat

Ekain berri

2.,3. ETA 4. SARIA:

Artazako Kanpina: %10
Lacturale: esneki lotea
Gaztezulo: 3 hilabetez doan
Magna Gurpea: 2 sarrera
Aquarium: sarrera bat

>> 11 galdera

Lide Huizi Saez de Albeniz

Errugbi jokalaria etxarriarra

Testua: Maider Betelu Ganboa



Lide, ezkerrean, bere pisukide eta taldekide Crisekin.

Baloia

badatoz!

KARTELAK
ESKUORRIAK
KAMISETAK
PUXIKAK

KOMUNIKAZIOA

Foru plaza, 23-1. Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107
gk@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus

1. Zer egiten du etxarriar batek Granadan?
Bilbon nago, ikasten, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Lizentziatura, baina aurtengo ikasturtea, 3. maila, Granadan egiten ari naiz, Séneca bekari esker. Oso gustura nago.

2. Noiz hasi zinen errugbian jokatzen?
Aurten, Granadan. Nire pisukide batek aurreko urtetik errugbi talde batean jokatzen zuen eta berak animatu ninduen probatzera. Kontentzitu ninduen eta Granadako Unibertsitateko INEF-eko Correcaminos Errugbi taldean nabil.

3. Nola jokatzen da errugbira?
Arau asko dituen kirola da, kontaktu handikoa. Bi talde daude eta futbol zelai antzekoan jokatzen da. Ateetako zutoinak altuagoak dira, bertikalagoak, H forma osatuz eta baloia obalatua da. Kontua da baloi hori taldekidetik taldekidera pasatzea, eskuz esku, eta kontrako zelaiko azkeneko marra gainditzea. Hau da, kontrako atera iristea, marra gainditzea, eta eremu horretan, in-goal izenarekin ezagutzen den eremu horretan, baloia lurrean uztea. Horrela entsaio bat lortzen da. Gero, baloia utzi duzun puntu horretatik hainbat metro atzera, linea zuzenean, baloia kokatu eta hankarekin baloia jaurtitzeko aukera duzu, baloia "entrepalos" esaten zaiona sartzeko.

4. Kontrako jokalaririk bidea tratatzen saiatzen dira plakatzeak eta beste eginez.
Hori da. Baina plakatzeetan ez dago guztia baimenduta. Erregelamendu zabala eta potentia dago

errugbiaren atzetik, bete beharrekoa. Esaterako, lepotik gora ezin duzu jokalaria bat hartu, fisikoki. Eta beste hainbat eta hainbat arau.

5. Kanpotik ikusita kirol gogorra dirudi. Horrenbestera al da?
Kontaktuzko jokoa da, hori bai. Plakazeei beldurra kendu behar diezu. Finean beste pertsona traba-tzea edo gelditzea da hori, beste pertsonari heltzea. Baina beldurra kentzen duzunean, eta ongi ikasten duzunean, ez da horrenbestera. Zuk kontrako jokalaria eutsi ahal diozu, lurrera bota, baina zu ere berarekin lurrera erori beharko zara. Ezin dituzu zango-trabak eta holakoak egin. Arau asko daude, jokoa seguruago izateko. Bestalde, ahoan bukalak jartzeko, babesteko. Tartean lesioak ere izaten dira, baina beste kirolean bezala.

6. Zein kategorietan zabilzate?
Gurea talde mistoa da. Mutilekin batera entrenatzen dugu, baina partidak aparte jokatzen ditugu. Gure taldea ez dago federatuta eta, hortaz, ez dugu federatutako txapelketetan parte hartzen, ez gaudeligan; torneoetan aritzen gara eta lagunarteko partidak jokatzen ditugu. Ongi doakigu. Talde dezentea gara, itxurakoa. Taldekide gehienak andaluziarrak dira, eta kanpoko bospasei jokalaria gaudel, hiru euskaldun tartean. Giro oso ona dago taldekideen artean.

7. Hurrengo ikasturtean Bilbora itzuliiko zara ikasketekin jarraitzea. Errugbiarekin jarraituko duzu?
Bai. Nire pisukidea Durangokoa da eta esan zidan bertan emaku-

mezkoen talde bat dagoela, federatua, Nesken Euskal Ligan parte hartzen duena. Eta ziurrenik bertara joko dut. Guztiz harrapatu nau kirol honek; geroz eta zale gehiago ditu, goraka doa.

8. Zein postutan jokatzen duzu?
Nik ez dut postu jakinik, oraindik ikasten ari naiz. Aurrelari ibildu naizeta orain jarri didate "tres cuartos" edo hiru laurden postuan, ihesaldiak egiten dituen aurrelaria, finean. Jokalaria azkarrenak izkintan kokatzen dira, aurrera ziztu bizian atera ahal izateko.

9. Egia da errespetua funtsezkoa dela errugbian? Jokalariek arbitroen erabakiak protestatu gabe onartzen dituztela?
Bai. Arbitroak esaten duena ez da zalantzan jartzeko. Errespetu handia zor zaio. Errugbiak arau asko ditu, bereziki jokoa segurua izan dadin. Eta jokoa ez da arriskutsua jokalaria guztiek elkarri agertzen dioten errespetuagatik.

10. Errugbian aritzera animatuko zenuke jendea?
Bai, zalantzarik gabe. Kirol gogorra dirudi baina barrutik ezberdina da. Harrapatzen zaitu, guztiz.

11. Egia da partida bukaeran bi taldeak elkarrekin bildu eta pote bat hartzea doazela eta horri hirugarren zatia deitzen zaiola?
Bai, hala esaten zaio eta guk ere hala egiten dugu. Hori da inportanteena (kar kar). Granadan bagaude, Granadako taldeak toki bat hartzen du eta partida bukaeran bi taldekoak bertan biltzen gara, giro onean eta gero, denentarte ordaintzen dugu.